

TOKIKOM

2018ko otsaila | 178. zenbakia

ai! kor!

txorierriko aldizkaria

Jesús Sustatxa
**Herriko
historiaren
jagolea**



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____


Orri hau helbide honetara bidali:


Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikari jarraituz, hau jakinarazten ditugu formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi baten gordetako direla. Fitxategiaren erabilera TOFDAN TXORORRKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatuko ditu. Kontrolak euren ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko duzu. Gero dela, edozein momentutan datuak eratu, baliogabetu eta azundu daitezke. Horetarako, helbide honetara jo behar duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan...
-  **12** Gurean izan da... Ane Ablanedo, hezitzailea
-  **14** Gaztea eta... Joana Flaviano, futbolari ohia
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Jesus Sustatxa
-  **22** Publierreportajea
-  **24** Taldeak... Zapata Gorriak
-  **26** Martxoak 8
-  **28** Iñaki Molano ile-apaintzailea
-  **30** Inauteriak Txorierriin
-  **32** Elena M^a Rodriguez Seoane, erizaina
-  **34** Teknologia... *Bitcoin*a eta *Blockchain*a
-  **35** Aikorrizketa... Arrue pintorea eta bendejerak
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Ane Ablanedo, hezkuntzan aditua



26 Martxoak 8



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



**Txorierriko
MANKOMUNITATEA**

diruz lagundutako aldizkaria



aiKOR!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora).
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Sara Gandara, Iker Martinez de Lagos, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Xabier Díaz, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota eritxien erantzukizunik.

Inertziak apurtzeko ariketa

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, batera, herritarren aitzindaritzatik, era guztietako erakundeen babesarekin, aldaketa zehatzak lortzera bideratutako ekimen praktikoa. Horrela laburbildu daiteke 2018an herriz herri antolatzen ari den Euskaraldia, duela bi hilabete Euskal Herri osoko hainbat eragile sozialek eta erakunde publikok aurkeztutako ekimena.

Herrigintza tradizio luzea dugu gurean. Hizkuntzaren aldeko borroka komunitatearen garapenerako tresnak sortzera bideratzen asmatu izan dugu. Orain, hizkuntza komunitate modura ditugun desafioei erantzuteko momentu erabakigarrian gaude. Euskaraldia kate luze baten katebegi izateko jaio da; biziraupenaren aldeko borrokan egotetik garapenean dagoen komunitate bat lortzera bideratu nahi dugu. Beste egitasmo askorekin batera nahi genuke Euskaraldia.

Herriz herri euskaldunok ahaldundutako hedatu diren ekimenetan du oinarria Euskaraldiak. Bestela esanda, euskaltzale askoren erabaki pertsonal eta kolektibotik dator. Gutxiengo izatearen konplexuak alde batera utzi, eta euskaraz bizitzeko nahia beren bizitzan praktikara eramateko erabakia hartu dute milaka lagunek jadanik (Agurainen, Egian, Lizarran, Baionan, Arrigorriagan,...). Inguruko harreman sareetako hizkuntza portaerak aztertu, eta inertziak bestelako hizkuntzatan dituzten harremanak euskarara ekartzeko hautua egin dute; eta hautua praktikara eraman. Hau modu kolektiboan egitea erabaki dute, denek batera, elkar babestuz eta mezu bateratua zabalduz: gu euskaraz bizitzera goaz! Horretarako, Euskal Herrian hedatzen ari den errealitatea baliatu dute: gero eta jende gehiago da euskara ulertzeko gai. Hau ez da ekimen sinboliko bat, ohiturak aldatu eta harremanetan inertziak apurtzeko ariketa sozial praktikoa da.



IKER MARTINEZ DE LAGOS
Euskaltzaleen Topaguneko kidea

Mugimendu herritarra izan da hau eta aurrerantzean ere horixe izango da Euskaraldia: herritarren eragiletzan eta aitzindaritzan oinarritutako ekimena. Ehunka boluntario eta aktibista ari dira jadanik lanean herriz herri, euskaltzaleen batuta eta hizkuntzarekiko konpromisoa ipar modura hartuta. Sarea zabaltzen ari da eta ahaldundutze hau da hizkuntza komunitatearen etorkizunaren berme nagusia.

Eta zein da erakundeen funtzioa guzti honetan? Babestea, herritarrek martxan jarri dugun dinamika honi babes neurriak gehitzea. Era guztietako erakundeak batu nahi izan ditugu Euskaraldira. Euskaraldira ari garenon eta erakunde publikoen arteko aliantza argi bistaratu da, baina gizartearen eragina duten gainontzeko entitate guztiak ere interpellatu nahi ditugu: erabilerarena ez da norbanakoen kontu hutsa, erakundeek espazio horiek babestu eta euskararen erabilera bultzatzeko testuinguruak sortu behar dituzte. Horregatik, erakundeen funtzioa ez da ekimenari atxikimendua ematea soilik, inguruan eragin eta praktika sozial berriak sortzeko ardura ere eskatzen zaie.

Beste helburu bat ere badugu: euskalgintzatik nekez heldu izan garen gizarte sektoreetara heltzea. Auzi hau ez da eus-

kaltzale aktiboen kontua bakarrik. Era guztietako entitateak nahi ditugu horretan bidelagun.

Eta, hau, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan batera. Aspaldiko urteetan gutxitan ikusi dugun zerbait da, lurralde guztietako euskaltzaleak eta erakundeak batera, norabide berean, lanean. Herriz herri hedatzen joan diren ekimenek orain arteko mugak gainditzeko gaitasuna erakutsi dute. Euskal Herri osoan proposamen baten bueltan hainbat lagun gogoz lanean ikustea handia da!

Herriz herriko dinamika aberastetatik badugu zer ikasia Euskal Herria lan eremutzat dugun erakunde eta eragileek. Hausnarketa partekatuak egitetik harago, urratsak batera ematera jotzea kosta egiten zaigu herri honetan. Eta urratsak ematen hasita, aukera baliatu beharko genuke anbizioz emanak, eraikitzaileak, sakonak eta atzera bueltarik gabeak izan daitezkeen. Eta, batez ere, urratsak beste batzuen atariko eta lorpen berrien abiapuntu izan daitezkeen.

Azaroaren 23an Euskaraldiaren aurkezpenean edo Korrikan, Santiago zubian, egindako argazkiak ez dira irudi hutsak, euskaraldira norabide berria ematen dioten sakoneko mugimenduak dira, elkarlan eta konplizitate berrien bila egiten diren proposamenak. Euskal Herriko zazpi lurraldeetan, batera, herritarren aitzindaritzatik, era guztietako erakundeen babesarekin, aldaketa zehatzak lortzera bideratutako ekimen praktikoa. Argazkia baino gehiago da hori.

Herritarren nahiari galga jartzen dioten inertzia zaharrak apurtzeko momentua da. Ekintza sinbolikoetatik urrats praktikoetara pasa, ezagutza hazten jarraitu, harremanetan sakoneko aldaketak sortu, eta pertsonen zein erakundeen ohitura eta inertziak apurtzeko garaia da. Honen bueltan ari diren herritar guztien indarrak aldaketa handia sortuko du, ez daukagu zalantzarik. Biba zuek!

LEZAMAKO BATZOKIAK

GARAIOITZA AUZOA 1208
946561719
batzoki.lezama@gmail.com

Familia osorako
kalitatezko oneta,
zure esku

Zaintza Berria
Logopedia
Psikologia
Kinesioterapia

clínica dental
ZAINDUZ
hartz klinika

Txantxerik gabeko, 9. Lurpeko Antzara erakutsi 148180 00000
94 404 01 311 807 75 54 45
info@dentozainduz.com | www.dentozainduz.com

WAFETEGIA

iAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 54 29 56

Arduraz gidatu, mesedez

Nire onetik ateratzen nauen gai bati buruz mintzatuko natzaizue oraingoan: gutako askok gidabai-mena eskuratzeko azterketa praktikoa berriz ere egingo bagenu, gutxi batzuek gaindituko genuke, gaizki, oso gaizki gidatzen dugulako. Jakina, izango dira gure artean ederki gidatzen dutenak, arauak errespetatuz eta, inportanteagoa dena, gainontzeko gidariak errespetatuz.

Izan ere, nahi dugun bezala gidatzen dugu, errepidean bakarrik joango bagina bezala. Arau-haustek aipatzen hasita, bereziki batek molestatzen nau gehien: hiru erreieko autobidean/autopistan, inor ez doala eskuinekotik. Hamaika aitzakia daude: 'kamioiek erabat kiskalita dute eskuineko erreia', 'seguruago gidatzen dut erditik', 'ez banaiz autobidetik/autopistatik irtengo, ez naiz eskuinetik joango'. Inozo aurpegiarekin uzten naute, eta momentuan ez dakit zer erantzun. Hobe esanda, badakit zer erantzun nahi diedan, baina ez dakit modu egokian egiten, une horretan deabruak hartzen naudelako.

Jarrai dezagun bestelako arau-haustekin. Keinukariak. Aizue, ematen duela autoek keinukaririk ez dutela, eta badute, jakina badutela! Eta erabiltzen ez ditugun bakoitzean, arriskuan jartzen ditugu

*Ondo gidatzea
zure esku
dago eta zure
erantzukizuna da*



SARA GÁNDARA
Kazetaria

gainontzeko gidariak. Izan ere, zergatik igarri behar dut nik zu nora zoazen? Zergatik aldatzen zara errei batetik bestera atzetik datozenak abisatu gabe? Ez da justua. Ondo gidatzea zure esku dago eta zure erantzukizuna da.

Biribilguneak. Ba al dakigu nola egin behar diren? Ba ez. Ez daukagu ideiarik. Teoriak dio kanpoaldetik eman behar ditugula, baina nahi dugun bezala egiten ditugu, eta keinukaririk erabili gabe! Barrutik, kanpotik, bi edo hiru erreiak gurutzatuz, ispiluetatik gure atzetik inor badator ikusi gabe... jarraitu nezakeen, baina biribilguneek kapitulu berezia mezezi dute.

Eta arau-haustek aipatzen ere segitu nezakeen (abiadura, seinaleei kasurik ez egitea, oinezkoentzako pasabideetan ez gelditzea...) baina azken paragrafo honetan, erreflexiorako deia egin nahiko nuke. Errepideak ez dira Bat Formulako zirkuitoak. Ez goaz bakarrik, errespetua zor diegu gainontzeko lagunei, eta askotan arrisku-egoerak saihestu ditzakegu. Edo zerbait larriago gertatu behar al da ondo gidatzeak duen garrantziaz ohartzeko?

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, beheko B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefinken@gmail.com

Garmendia ardoak

Pinoz pol., P-3B
ZAMUDIO

Tel/Faxa: 94 452 00 49

Tel/faxa: 94 452 06 64
Tomelarragoli ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante JAKA-JETEX

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jauziak, batakak eta ezkontzak

ARTIZAR
MARKOA IPINTZEKO TAILERRA
MARKOAK • MOLDURAK • GRABATUAK

LIKIDAZIOA
ERRETIRORAK HARTZEAGATIK
MARTITZEN ETA EGUENETAN, ZABALIK

Justo Ajuria, 3-644 24 36 30-48150 Sondika

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Etiketa Txakolina
Denbortzaile de gurea

Geltokiak

Geltokiak zuzen, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

MARMOLGINTZA GOYO
SUMALDE-GARUNEKOAK OFERTATZEN DITUGU

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nahes
48160 Berio, Bizkaia

T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

TABERNA GAZTEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Arenakalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Bertso afaria, Lagatzuren eskutik

Martxoaren 23an izango da Baserri Antzokian, eta bertan bertsolari hauek arituko dira bat-batean: Etxahun Lekue, Onintza Enbeitia eta Unai Elorriaga. Gai jartzaile Maite Berriozabal ibiliko da. Afaria 21:00etan izango da eta 17 euro balioko du; ikasleek eta soldatarik ez dutenek 12 euro ordainduko dute. Txartelak martxoaren 20 baino lehenago eskura daitezke Estankoa, Susterrak tabernan, 94 452 34 47 telefono zenbakira deituta, edo lagatzu@lagatzu.org helbide elektronikora mezu bat bidalita.

100 zuhaitz landatuko dituzte Lezaman

Aurreko urteetan bezala, Zuhaitz Eguna ospatuko dute martxoaren 18an. Hitzordua goizeko 11etan ipini dute plazan, eta handik udal lursail batera abiatuko dira zuhaitzak landatzera. Orotara 100 ale landatuko dituzte, haritzak, astigarrak, urkiak eta gorostiak. Ekintza ludikoa eta didaktikoa da aldi berean, eta bertan familia osoek parte hartu dezakete. Eguraldi ona bada, hamaitakak eskainiko diete parte-hartzaileei. Era berean, umeentzako tailerrak, puzgarriak eta musika egongo dira.

"Zure ileak balio du"

Hori da martxoaren 18an, Derion egingo duten ilea emateko ekitaldi solidarioaren eslogana eta mezua. Aurreko alean jakinarazi genuen moduan, "Mechones solidarios" irabazi asmorik ez duen elkarte da, eta ile naturalez egindako ileordea edo peluka behar duenari eskura ipintzea du helburu. Horiek kimioterapiaren ondorioz ilea galdu duten lagunak izan daitezke, edo gaixotasun arraroren bat duten lagunak. Txorierri institutuko ikasle batzuek elkartearan lana ezagutzen dute, eta sentikorrek dira horrekiko zein lehen aipatutako lagunek dituzten arazoekiko. Horregatik ilea emateko ekintza solidarioa antolatzen proposamena egin zieten Txorierriko ile-apaintzaileei.

Ekitaldia frontoian izango eta hari goizeko 10etan emango diote hasiera. Ile-apaintzaileek 10:15ean ekingo diote lagun solidarioen ilea mozteari, baina ize-na ematea 11:30ak arte egin ahalko da. Ekitaldia 11:00etan inauguratuko da ofizialki.

Bestetik, 10:30etik aurrera ume eta nagusientzako tailerrak egongo dira: aur-

pegia margotzea eta koloretako artilez egindako ileordeak, umeentzat; eta ileordeen eta berariazko makillajeen erakusketa eta tailerra, nagusientzat. Gainera, Bilbao magoak ikuskizuna eskainiko du 11:30etik 12:30era, eta horren ostean, umeek hamaiketako eder bat gozatzeko aukera edukiko dute. Taberna Ibiltaria taldea 12:30etik aurrera arituko da, eta ekitaldi solidarioari 14:30ean emango diote amaiera.

Ilea eman nahi dutenek aurretik garbitu egin beharko dute ilea, eta 18 urtetik beherako gazteek gurasoen edo tutorearen baimena aurkeztu beharko dute. Ilea eman ahal izateko, gutxienez 20 zentimetroko luzera eduki behar da, emaila 14 urtetik beherakoa bada; eta 30 zentimetroko luzera, gainontzekoen kasuan.

Parte-hartzaileek bost euroko dohaintza egin beharko dute, eta nahi duenak hurrengo telefono zenbaki honetan egin dezake aurretiko izen-ematea: 604 35 66 74.

Antolatzaileek espero dute jendea animatzea eta ekintza solidarioa erabat arrakastatsua izatea.



yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterforag@hotmail.com

Herriko LIZAMA Bilbo

SAT. LECU

ERROTILLERIA ETX. 8240-LEZAMA

Tf. 94 455 24 17

RUBEN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Larrendakari LIZAMA (Bilbo), 5
48170 Zamudio
94 452 14 40

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erni@euskalnet.net

ARLOK: LANTZEA - TARTARDA
BERRAZTEK - ERORI GAZTEAK
SAL ERROKATIAK
SECURITAS BILBAOEN AGENTZIA

Jatetxea **SAN ISIDRO**

ETXEROKO ETXEN ERREKUPERTUA ETA ETXEROKO GASTOEN KONTAKU

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatuak
Jantoki bakartuen 180 toki - Sukalderitza tradizionala

Telefonoa: 94 454 07 90
Fax: 94 454 14 10

Wungateko etxerria, 21
48170 LEZAMA

RPA MAYORISTAS INFORMATICOS

**ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA**

Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpamayoristas.com

Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketa, euripean



Gure Señeak elkarteak zazpigarren aldiz antolatu zuen Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketa, otsailaren 11n, Derion. Guztira, 400 lagunek eman zuten izena lasterketan, baina eguraldia oso txarra izan zen eta azkenean, 270 korrikalarik baino ez zuten ekimenean parte hartu. Antolatzaileek esaten dutenez, "Euria barra-barra egin zuen, baita hotz ikaragarria ere. Pena izan zen, ze ibilaldia putzuz beteta egon zen. Hala ere, pozik gaude, helburua bete dugulako, hau da, kirola egiteko aukera emateaz gainera, gaixotasun arraroen inguruko jai-eguna antolatu dugulako".

Goizeko 10:30ean umeen lasterketa egin zen, kilometro batekoa, Derioko kaleetatik. Ondoren, nagusien txanda izan zen, bai lasterketan, bai ibilaldian. Lasterketak amaitu zirenean, parte-hartzaileak txosna batean batu ziren taloa eta txorizoa jateko. "Datorren urtean eguraldia aurtengoa bezain txarra bada, salda eskainiko diegu korrikalariei". Kantarelux musika taldeak hamaiketako girotu zien kirolariei eta lagunei.

Gure Señeak irabazteko asmorik gabeko elkarte 2010ean sortu zen, gaixotasun arraroak dituzten umei eta haien familiei laguntza eta babesa emateko.

Elkartetik adierazi duten moduan, gaur egun Derion 11 familia daude elkar-teari lotuta. Familia horien seme-alabek gaixotasun-espektro zabala dute, hala nola Esklerosi tuberkuluduna, Angelman sindromea, Proud Levine Carpenter sindromea, fibrosi kistikoa, garun-paralisia eta autismoa. Elkartearen erreferente bihurtu da herrian, eta urtean zehar antolatzen dituzten kontzientiazio-ekintzen artean Kepa eta Arene neba-arreben oroimenezko lasterketa da azpimarratzekoa. Neba-arrebak gaixotasun arraro baten ondorioz hil ziren eta lasterketak umeak gogora ekartzea du helburu.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami aske, 1
Tel.: 94 454 12 08
Fax: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
KARLOS KALAN
Nerea Pedrosa Gal: 0000
00000000000000000000
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Fax: 94 454 12 15

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialista gurasu zentru baten baten
- Aurtekoak: 1000
- Especialitateak: umeak

Udako T. baten
48170 DERIO (Bizkaia)

PATXI
KOOP

DERIO KOOPERATIBA ELKARTEA
Nerea gal: 00000000000000000000
Tel.: 94 454 12 07 - 94 454 12 07

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

FRUTAK **BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - behealdea 48195 Larrabetzu 94 455 89 19

Larrabetzu eta Fika arteko errepidea hiru-lau hilabetez egongo da itxita



Euria barra-barra egin du otsailean eta horren ondorioz, lur-jausi bat egon zen hilaren 13an, Astoreka gainetik gertu, BI-3102 errepidean, Larrabetzu eta Gamiz-Fika artean. Lurrak aurretik eraman zituen zuhaitzak eta horiek asfaltoaren gainera erori ziren. Bidea desaginda geratu zen. Gainera, lurrak auto bat harrapatu zuen, baina gidariak zein berarekin batera autoan zihoazen beste bidaiari biek ez zuten minik hartu. Gidaria Gamiz-Fikakoa da eta bidaiariak, mungiarak.

Lur-jausia zela-eta, errepidea moztu egin behar izan zuten, eta hura berriz ireki ahal izateko hiru-lau hilabete behar ko dira. Ordura arte, trafikoa Gerekizeko

gainetik bideratuko da. "Terrenoak jabe pribatu batena da. Guztira, 25.000 m2 lur mugitu dira eta horiek kalte handia egin diote errepideari", adierazi du Aldundiak ohar batean.

Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkateak esan digunez, "Errepidea Aldundikoa da eta eurek hartuko dute hori konpontzeko ardura. Guk eurekin hitz egin dugu, informazioa jasotzeko eta hori herritarrei lehenbailehen emateko. Zorionez, lur-jausiak ez dio inori minik egin eta datozen hilabeteotan ekarriko dituen oztopoak ere txikiak izango dira. Izan ere, Bilbora joateko aukera bi ditugu: Txorierriko barne-bidea eta Gerekiz".

Aldundiaren autobusa, Txorierri

Autobusa gurean izan da otsailaren 1etik 9ra bitartean eta hara igo zirenek Bizkaiko Foru Aldundia gertuago ezagutzeko aukera izan zuten. Horrela, informazio-panelen eta ukimen-pantailen bidez, besteak beste, Aldundia eta horren baitan dauden sailen berri eduki zuten, eta gure eskualdean ze proiektu dituen jakin zuten. Era berean, bidaia birtuala egin ahal izan zuten Santimamiñeko kobatik. Iradokizunak egin eta jasotako informazioa baloratu ere egin ahal izan zuten bidaiariak. Horri lotuta, aipatu beharra dago, Txorierri metro-sarean benetan integra dadin sinadurak batzen ibili diren herritarrek sinadura horien kopia eman dietela autobuseko arduradunei. Sinadurak ekainean aurkeztu ziren Garraio partzuergoan.

Foru Aldundiko autobusak bide-lagun bi eduki zituen: alde batetik, Bizkaiko produktuak eskaintzen zituen *food truck* edo kamioi bat; eta bestetik, Bilboko Arte Ederren Museoko 40 artelanen kopien erakusketa.



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretrialde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Buzkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Alaia

Fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Berteko produktuek

Telak, 8
94570 Zumalacarte
14.000.000



astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com



DERIO - 946 451 781

BIZKARGI

TABERNA ETA JANARIA

Urkala, 8 DERIO 94541635

**XURREGOTTI
JATETXEA**

Lauropita etorbidea, 27
48180 Leku Bizkaia
T-Fona: 94 453 24 40
restaurantxurregotti.com



Martxoaren 18an, Independentzia Eguna ospatuko dute Larrabetzun



a: Idoia Andres

"Buruja be" lelopean, eta Independentistak Sareak eta Larrabetzuko Herriar Independentisten Batzordeak antolatuta, zenbait ekitaldi antolatuko dira egun osoan zehar. Hausnarketa politikoa eta soziala, aldarrikapena eta jai giroa uzartuko dira bertan.

"Independenteak izan nahi dugu jakin badakigulako inoren menpe barik, geure buruaren jabe, askoz hobeto biziko garela. Milaka gara hori sinesten dugunok eta horrela erakutsi dugu herriz herri burutu diren galdeketeran. Estatu propio bat nahi dugu, denari buruz geuk erabakitzeko", esan dute antolatzaileek ohar batean. "Euskal Herri independente bat nahi dugu, arloz arlo, eguneroko bizimoduari aurre egiteko baliabideak eta ilusioa dituen, bere herritar guztien ongizatea bermatu dezakeena".

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, Euskal Herri osoko eragileak batuko dira Independentziaren Egunean, eta nork bere arloan zer egiten duen azalduko du. "Batez ere, ozen adieraziko dugu Euskal Herriaren independentziaren alde gaudela". Diotenez, Estatu espainiarrak eta frantsesak oztopatzen dute helburua. "Espainiarrak Katalunian egiten dabiltzanak eta frantsesak korsikarrei, horrek independentziaren beharra berretsi baino ez du egiten. Argi dugu herritarren borondate irmoak oztoporik handienak gaintzen dituela, ezinezkotzat duguna ere lorgarria dela. Eta independentzia gaur eta hemen, lorgarria ez ezik, ezinbestekoa ere bada".

Egun horretarako, kanta berezi bat prestatu da, Joseba Etxebarria larrabetzuarrak hamaika aldiz plazetan kantatu duen

Egitaraua

- 11:00 Kalejira: txistulariak, trikitilariak ...
- 12:00 - 14:30 Euskara, hezkuntza, sozioekonomia, energia, feminismoa, memoria, aniztasuna, kirola ... Arlo bakoitzak bere mahaia eta bere gunea izango du herriko plazan eta hainbat ordezkari hitza hartzeko aukera izango dute.
- 13:00 Ondo etorria ordezkari, gonbidatu eta herritarrei. Ekitaldi instituzionala.
- 15:00 Bazkari herrikoia.
- 17:30 Kultur emanaldia.
- 18:00 Ekitaldi nagusia.
- 18:30 Erromeria: Inmuntzo eta Beloki.

"Zazpi Euskal Herriek" abestiaren bertsio berria, hain zuzen ere. Letra Etxahun Lekue herriko bertsolariak egin du eta abestiaren lanketa eta grabazio-lanetan hainbat larrabetzuarrak hartu dute parte.

Larrabetzu, independentziaren alde

Antolatzaileek adierazi dute larrabetzuarrak independentziaren alde agertu direla. Izan ere, hainbat lagunek hartu zuten parte 2017an egin zen herri galdeketeran, eta bertan Estatu buru jabe baten aldeko jarrera nagusitu zen. "Pauso bat aurrera emateko aukera egokia da martxoaren 18koa. Horregatik, larrabetzuarron borondatea gauzatzeko ekimen lege eskatu diogu udalari bere burua Euskal Herriaren independentziaren aldeko udalerriz izendatu dezan". Zentzu horretan, independentziaren aldeko mozioa aurkeztuko da herriko udalbatzan, otsailaren 28an. Antolatzaileek hara joateko deia egin diete herritarrei, han "Larrabetzuko historiako hain garrantzitsua izan daitekeen erabakia hartuko da-eta".

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO · BILBAO · GETXO · ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es



Harri batez, txori bi

Mikel Villanueva eta Arrate Ugarte, semea eta ama, argazkilaritza klasera doaz asteazkenero, Loiuko liburutegira. Amak 73 urte dauzka eta betidanik gustatu izan zaio argazkilaritza. 2017ko urrian udal tailerra egongo zela jakin zuenean, izena eman zuen. Filmedun Canon T50 modeloarekin agertu zen klasean. Semeak, ostera, 47 urte ditu eta Canon konpaktu digital batekin egiten ditu argazkiak. Generazio ezberdin bi dira, helburu berdinarekin: argazkilaritza ikasi eta gozatzea.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarraguñi ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48179 ZAMUDIO (Bizkaia)



Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lorra - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 95 88 43 - lpilend@gmail.com



IRATXO
gozategia

lortu pertsonalizatuak
trufak
leixak
pastelak
panak

Model Txarcho, 2 - 8. lorra - Sondika, 48120 • 94 667 88 10



RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi,
Teorietan

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

“Eskolari ez zaio ezer erantsi behar, kendu baizik”

ANE ABLANEDO | hezkuntzan aditua

Irundarrak Txinpasmendi Larrabetzuko gurasoen elkar-teak hezkuntzaren gainean antolatutako jardunaldietan hartu zuen parte. Bertan eskolaren benetako kalitatea zertan datzan izan zuen hizpide.

t: Itxaso Marina / a: Marta Salas

Bada, horixe. Zertan datza?

Beti gabiltza eskolaren nolakotasunari bueltak ematen, eta gobernura ailegatzen den talde bakoitzak ere bere berrikusketan egiten du heziketaren inguruan. Baina eskola ez da gehiegi aldatzen, eskolarekin identifikatzen ditugun elementuak ez ditugulako kuestionatzen. Aldaketa egin nahi bada, elementu horiek guztiak aldatu behar dira. Nire ustez, eskolari ez zaio ezer erantsi behar kalitatekoa izateko, kendu baizik. Kendu behar zaio haurrengan duen itxaropena, haurren erritmoa derrigortzen duen guztia, jakintza sailkatzeko duten materialak, irakaslearen funtzioa, azterketak... Horrela eskolak benetako ikastoki bilakatuko lirake eta haurren garapena bermatuko lukete.

Zeintzuk dira gaur egungo hezkuntza sistemaren ahuleziak?

Gizabanakoari ez dizkio bizitzeko behar dituen jakintzak eta ematen. Hezkuntza sistemak egiten duena da gizakia nolabait moldatzea. Badu gizakiak bilakatu behar duen eredu bat, eta pedagogia bideratzailea ipintzen du martxan horretarako. Horrela, komeni ez diren gai-

tasun edo nolakotasun batzuk kentzen dizkio haurrari, eta beste batzuk hobetsi egiten ditu. Ez dio uzten den bezalakoa izaten eta, ondorioz, haurrak ez du konfiantzarik berez bilakatu ahal den horretan, eta izan behar duen horretara bideratzen da. Mina eragiten da hor. Ahulezia handiena da paradigma oker eta bideratzaile batetik gabiltzala haurtzarora begiratzen. Hori aldatu beharra dago.

Badu indargunerik?

Bai, gauza positibo asko ditu; kontua da eskolak benetako eszenatoki ona izan behar duela haurrarentzat. Gizarte antolatuta dagoen moduagatik, haurrek ordu asko ematen dituzte eskolan, beste haur batzuekin elkartzen dira... eta badaude haurrak zaindu eta laguntzearen funtzioa duten eredu edo baliabide batzuk. Gauza handia da hori. Hala ere, aztertu beharra dago zergatik ez den ulertzen umea zelantzen den eta zelantzen egiten duen aurrea, eta eskola zergatik ez zaion horri egokitzen. Lehen esan moduan, paradigma aldatu behar da, begirada, haurrari egiten zaion eskakizuna, bere erritmoa azkarra goa izan dadin eragiten zaion premia... Hori kenduta, gainerakoa ona da. Gero, eskolak duen beste gauza on bat da irakasle

batzuek gauzak beste modu batean egin nahi dituztela, eta hausnarketa-maila handia dagoela.

Zertan hobetu behar du?


Zehatza izanda, uste dut etxerako lanak kendu beharko lirakeela, eta curriculumak askoz malguagoak izan beharko lirakeela. Are gehiago, nik neuk kendu egingo nituzke. Beharrezkoak diren jakintzak haurrak berez ikasiko dituela espero dudalako, eta interesa duen horretan aditua izango dela, jakin-mina pizten bazaio. Baina ezin badira kendu, malguagoak egingo nituzke. Era berean, benetan kalitateko arreta eskaini nahi izanez gero, ikasgeletan haur gutxiago egon beharko lirake.

Zein eredu ezarriko zenuke zuk?

Uste dut askatasuna printzipio ukaezina dela pertsonentzat; eta haurrak pertsonak diren heinean, haientzat ere bai. Beraz, pedagogia askearen eredu eza-rriko nuke nik. Jaio denetik, haurrak erabakimena eduki behar du, bere adinaren arabera, kudeatu dezakeen esparruari buruz. Oso garrantzitsua da hori, izan ere askatasuna heldutasuna da, aukerak egin ahal izatea eta aukera horiek dakartzaten ardura eta ukoa onartu ahal izatea. Eta

“Gure sena eta intuizioa berreskuratu behar ditugu, eta haurrekin egoteko beste modu bat garatu”

“Gizarteak aitatasun eta amatasun kontziente, emana eta presentziala eskaini ahal izatea bermatu beharko luke”





Ibilbidea

Ane Ablanedo Larrion (Iruña, 1973). Euskal Filologia ikasi du eta aditua da Psikoterapian eta neurosiaren prebentzioan. Bigarren Hezkuntzako euskara eta literatura irakaslea, Nafarroako eta Baionako Unibertsitateetan ere badabil irakasle. Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik, Hezkuntza sistema alternatiboak eta Haur psikologia ikastaroak eman ditu.

turan integratzeko beharra eta gogoia. Beraz, orduan badu zentzua edukiak ikastea, munduaren arauak, zergatiak... Lehenago da jolastea, mendia, hostoak, lokatza, korrika egitea... Eta eskolara joan behar badu, gurasoek beste aukerarik ez dutelako, eskolak etxean hurbileko pertsona afektiboek eskainiko lioketen arreta bera eskaini beharko lioke.

Gizarteak amatasuna eta aitatasuna ulertzen dituen modua ere aldatu beharko luke, beharbada.

Hautzaroak pertsona batengan duen garrantzia ezagututa, benetan sana den gizarte batek egundoko indarra ezarri beharko luke haurren hasierako urteen zainketan, helduaren gaitz gehien jatorria, nabardurekin noski, hautzaroan daudelako. Beraz, aitatasun eta amatasun kontziente, emana eta presentziala eskaini ahal izatea bermatu beharko luke, eta hori aitortu, zaindu, bere funtzio prebentiboa saritu eta sustatu, eta baja luzeak eman. Inork baino hobeto heziko dutelako haurra, horretarako biologikoki gaudelako prestatuta. Baina, jasotako heziketaren ondorioz, gure naturarekin hautsi egin garen, eta gure buruarengan konfiantzarik ez dugunez, beste batzuen esku uzten dugu haurren heziketa. Hori guztiori jakina da, baina gauzek berdin jarraitzen dute. Pentsa daiteke norbaiti interesatzen zaiola.

noski, ez da nik asmatutako eredua; eskola existitu den momentutik existitu dira alternatiboak izeneko eskolak, adibidez Summerhill eskola ezaguna. Eta heziketa eredu moduan askatasuna edo autoerregulazioa ezarri den etxeetan ere ikusten da horrek funtzionatzen duela. Nola ez du egingo, bada? Guk askatasunari beldur diogu gure heziketaren produktua garelako. Pedagogia askea, edo aktiboa, haurraren konfiantza izatea litzakete, eta harengan berez egiten duguna baino gehiago ez eragitea.

Gure kulturak haurrei beren garapenean laguntzen dion modua aldatu behar dela diozu.

Errotik. Eta hori haurrak zaintzeko ardua dugun guztion artean egin behar da. Komunitateetan, eta animalien kasuan ere, helduek beti izan dute haurrak heztearen

eginkizuna. Oso gauza naturala da. Baina gure heziketaren produktua garenez, gure naturatik deskonektatuta sentitzen gara, eta gure buruarengan konfiantzarik ez dugunez, sistema bideratzaile hori iraurarazten jarraitzen dugu. Gure sena eta intuizioa berreskuratu behar ditugu, eta haurrekin egoteko beste modu bat garatu. Aldaketa politikoa eta kulturala behar da horretarako.

Umeak goizegi bidaltzen ditugu eskolara?

Bai. Ezarri beharreko paradigma horren gakoa da haurren beharrak asetu behar ditugula, garatu eta loratu daitezkeen. Eta haurren beharren artean ez dago bi edo hiru urte bete baino lehenago eskolara joatea. Haurrak sei urtetik aurrera sentitzen ditu bere komunitatean eta kul-



"Futboleant bizi izandako une guztiak disfrutatu ditut"

t: Gaizka Eguzkitza / a: J.F.

JOANA FLAVIANO | futbolari ohia

Agur esan zenuenean, triste egon zinen. Pasatu zaizu?

Oso triste egon nintzen, baina orain oso lanpetuta nabil eta futboleant pentsatzeko denborarik ere ez daukat.

Gizonezkoa izan bazina ez zenuen futbola utzi behar izango. Hori pentsatzeak amorrua ematen dizu?

Ez dut horretan pentsatzen. Gauzak suertatzen diren moduan suertatzen dira: tamalez, emakumezkoen kirolaren gaur eguneko egoera horixe da eta horren aurka, amorrua baino, emakume kirolarien eskubideengatik borroka egiteko gogoia ematen dit.

Erabakirik zailena hartu behar izan zenuen. Zergatik izan zen hain zaila?

Futbola uzteko asmorik oraindik ez neukalako. Nire burua ez zegoen prest futbola alde batera uzteko eta bizitza "normal" bati aurre egiteko. Hala ere, nire zorionerako, bizitza berri honekin disfrutatzeko erak bilatu ditut.

Nolako garrantzia izan du Athleticen zure bizitzan?

Nire familia balitz bezala zen. Une asko igarota nituen, urte eta lagun asko, inoiz ahaztuko ez ditudan une onak eta txarrak, negar eta barre egin nuen, denerik...

Liga bi irabazi dituzu Athleticen. Zein izan zen gozoena?

Bigarrena, azken batean, lehenengoan ez nuen ia-ia parte hartu, bigarren taldean nengoelako. Bigarren liga garai hartan jasandako sufrimendu guztiaren saria izan zen: hainbat aldiz erori ginen, baina beti altxatu ginen. Beti ibiltzen ginen lehenengo postuetan eta azkenean irabazi egin genuen liga. Itzela izan zen.



Joana Flaviano lezamarra jokalaria garrantzitsua zen Athleticen baina, lana dela-eta, futbola alde batera utzi behar izan zuen. Hasieran, gazteak txarto pasatu zuen, baina orain bere bizitza berrira egokitzen dabil. Horretaz eta Athleticen inguruan hitz egin dugu Joanarekin.

Pena ematen dizu partida gehiago jokatu ez izanak?

Nik ez dut horri buruz pentsatzen. Jokatu ditudan partidak jokatu ditut, eta horretaz harro eta pozik nago. Une guztiak disfrutatu ditut.

Eskarmentu handiko jokalaria askok alde egin duzue Athleticetik ia aldi berean. Taldeak nabaritutako zuen hori?

Jokalariren batek urtero uzten du taldea. Eta talde honen bereizgarrietako bat hau da: jokalaria guztiak ezinbestekoak dira. Seguru nabaritu dela, baina ziur nago bigarren taldeko edo beste norbaitek beteko duela eskarmentu handiko jokariok utzitako hutsunea.

Athletic urtebetean utzi zenuen eta Italiara joan zinen. Zergatik? Nolako esperientzia izan zen?

Futbolak ekarri ahal zizkidan esperientziak aprobetxatu nahi nituen eta horregatik joan nintzen Italiara. Egia esan, berdin zitzaidan nora joan, kanpora joan nahi nuen etxetik kanpo futboleant arituta zer sentitzen zen jakiteko. Hango maila hemengoa bezalakoa da, agian apur bat fisikoagoa, baina teknikoki oso antzekoak dira.

"Emakumezkoen kirola egoerak kirolarien eskubideengatik borroka egiteko gogoia ematen dit"


"Futbola uzteko erabakia oso zaila izan zen, futbola uzteko asmorik oraindik ez neukalako"



Berdegunetik, mendira

Joana Flaviano Aurtenezek (Bilbo, 1990) abenduan iragarri zuen Athleticean jokatzeari utziko ziola. Albiste tristea izan zen klubarentzat, Joana oinarrizko jokalaria zelako. Guztira, lezamarrek 11 urte eman ditu talde zuri-gorrian, eta tarte horretan 231 partida jokatu eta 26 gol sartu ditu. Gainera, liga bi irabazi zituen, 2007an eta 2016an. "Futbola ikusten dudanean, nostalgia apur bat sentitzen dut, baina normalean ez dut denbora askorik futbolari buruz pentzatzeko", esan digu.

Joanak futbola utzi du oposaketa bat gaindita duelako eta Gasteizen dabilelako. "Oso gustura nago, pozik, jende oso atsegina ezagutu dut han, eta beste etapa batzuetan saiatzen nabil. Bizitza berria da, eta orain arte egin ez ditudan gauzak egiten nabil". Besteak beste, pilotan murgildu da, Emakume Master Cup txapelketan hartu duelako parte. Hala ere, Joanak ez du etorkizunari begira horretan jarraitzeko asmorik. Mendiko trailak, hau da, lasterketak, ordea, bere zaletasun berria dira. Eta ziur asko, txapelketaren batean ikusiko dugu Joana.



Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin



UP/Eusko Foruak, 1 | 48100 - DEUSTO | Tel.: 94 403 40 80 | info@txorierri.net
48100 - DEUSTO | Fax: 94 403 40 81 | www.txorierri.net



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikako Dreinarako goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazio goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrol goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknika
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Euskarak 365 Egun Euskal Herri osoan, eta Txorierrin ere bai

Herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko asmoz, Euskal Herri osoan "Euskarak 365 egun" dinamika bultzatu nahi dute Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaleen Topaguneak. Proposatzen duten ekimen bateratua ez da ekintza puntuala egitea, hilabeteetako plangintza antolatzea baizik, hurrengo urteetarako oinarria jarriko duena. Txorierriko Mankomunitateak ere bat egingo du lan ildo honekin, ekimen honek euskararen erabilera begira izan dezakeen garrantziaz ohartuta.

Hiztunek oso errotuak dituzten ohiturak aldatzeko proposamena da, euren egunerokoan euskaraz aritu daitezen, euskaraz ulertzen duten herritar guztiekin.

Baina zer da "Euskarak 365 egun" dinamika hau?

Euskal Herri osoko hiztunei oso errotuak dituzten ohiturak aldatzeko proposamena da, euren egunerokoan euskaraz aritu daitezen euskaraz ulertzen duten herritar guztiekin. Azken finean hori da lortu nahi dena.

Zenbat aldiz gertatu zaigu harakina-rengana joan eta berarekin erdaraz aritzea, benetan jakin gabe berak euskaraz dakien edo ulertzen duen?

Edo eta koadrilan gaudenean, bat izan ezik denak euskaldunak izan arren, erdaraz aritzea, pertsona horrek ez duelako euskaraz berba egiten? Baina pertsona horrek euskaraz ulertzen badu? Zergatik ezin diogu euskaraz berba egin?

Eta taldean denok euskaraz jakinda erdaraz berba egiten dugunean, "ohituragatik", konturatu gabe?



Hamaika egunetan zehar zenbait ohitura eta harreman aldatzeko gai bagara, zergatik ez ditugu aurrera begira harreman horiek mantenduko?



Eguneroko harreman horiek dira aldatu nahi ditugunak, hain zuzen, eta horretarako euskal hiztunak pres-tatu eta aktibatu nahi ditugu hain errotuta dauden ohitura horiek alda-tzen joan daitezen.

Zer egingo dugu horretarako?

Txorierriko euskara elkarteekin eta gainerako eragileekin elkarla-nean, euskaraz hitz egin edo ulertzen duten txorierritar guztiengana heldu nahi dugu eurak ere dinamika horre-tan parte har dezaten.

2018an, **11 egun euskaraz** bizi ahal garela frogatu nahi dugu, hau da **azaroaren 23tik abenduaren 3ra**.

Horretarako, 16 urtetik gorako txorierritarrak ahobizi eta belarri-prest bihurtuko ditugu.

–**“Ahobiziak”**: ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egiten dieten pertsonak izango dira (baita ezeza-gunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo dietenak ere).

–**“Belarriprestak”**: Gutxienez euskaraz ulertzen duten kideak izango dira, gainontzekoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatuko die-tenak.

Dinamika honetan parte har-tzeko izen-ematea zabalduko da eta bakoitzak identifikaziorako txapa bat izango du.

Txorierriko sei udalerrietan hau guztia martxan jartzeko eta herri-tar eta elkarte guztietara heltzeko, batzordeak osatuko ditugu bertako talde eragileekin elkarlanean, eta ekimen orokor guztia koordinatzeko Txorierriko Mankomunitateak Eus-kaltzaleen Topagunea kontratatuko du apiriletik abendura pertsona bat lanaldi erdiz aritu dadin.

Euskaltzalea bazara edo besterik gabe kalean euskara gehiago ent-zutearen alde bazaude, udalerrietan sortuko diren taldeetan parte har-tzera animatu nahi zaitugu. Horre-tarako gogoia eta borondatea bes-terik ez da behar.

Hamaika egunetan zehar zenbait ohitura eta harreman aldatzeko gai bagara, zergatik ez ditugu aurrera begira harreman horiek manten-duko?



Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzuak adin guztietako pertsonak zainduko ditu

Txorierriko Mankomunitateko Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzuak bikoiztu egingo du aurten bere iraupe-na, eta arreta herritar guztiei zabaldu-ko zaie. Zerbitzua 2005. urteaz geroztik eskaintzen da, eta hasieran umeengan zentratu zen, Lehen Hezkuntzako eta Bi-garren Hezkuntzako ikastetxeen eskariei erantzuna ematearren. Zerbitzu hori gi-zarte-, hezkuntza- eta osasun-sarearen baliabide asistentzialekin osatzen da.

Orain arte, zerbitzua 18 urtera bitarte-ko adingabeentzat eta euren familientzat zen (familiaren esku-hartzea beharrezkoa zen kasuetarako); baina, Eusko Jaurlaritza-

ko 185/2015 Dekretuaren bidez Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorro berria onetsi denez geroztik, Txorierriko Mankomunitateak zabaldu egin du zerbitzua. Hemendik au-rrera, zerbitzua astelehenetan, 10:00eta-tik 18:00etara eta ostiraletan, 08:00etatik 15:00etara eskainiko da Txorierriko Man-komunitateko lokaletan.

Udalerri bakoitzeko gizarte langileek emango dute zerbitzurako sarrera, eta bertan ematen diren babes psikosozia-leko harreman-prestazioak banakakoak, familiakoak edo/eta taldekakoak dira. Zer-bitzua, halaber, prebentiboa ere bada eta xede du goiz atzeman eta tratatzea bana-ko jarrera arazoak edo/eta familiako ara-zoak, gaiztotu eta nahasmendu psikopa-tologiko kronikoak eta gizarte-bazterkeria eragin baino lehen. Horretarako, psiko-logia konduktualaren ikuspegi jorratzen da, eta helburua da gaitasun pertsonalak, familiarrak eta taldekakoak eskuratu eta garatzea eta hainbat ohitura eta jarrera desegoki aldatzea.

***Zerbitzuaren
iraupena eta
arreta bikoiztu
egingo da***

“Herria guztia da niretzat”

JESUS SUSTATXA | Ioiuztarra

Luis eta Mariaren semea, Jesus Sustatxa (Loiu, 1953) jaio zan baserrian bertan bizi da, aita eta aitite jaio ziran baserrian hain zuzen be. Clementene edo Juanmigelene moduan zan ezaguna lehen; orain Elizondo 13 da. Eta handik mugidu barik, Jesus Ioiuztarra izan da, bilbotarra, eta Ioiuztarra barriro. Herria maite dau, eta maitasun horrek Loiu eta bere herritarren historia jasotzera eroan dau. Denporearen podazoz galdu ez daiten.

t/a: Itxaso Marina

Oroitzapen asko etxe hontan, ezta?

Etxea guztiz aldatu da. Hemen, gaur egun egongela dagoan lekuan, beheko sua egoan lehen, eta hor, txarria hiltzen zanean, txorizoak-eta eskegiten genduzan (hasi da txoko bat eta bestea seinalatzen). Hor artoa zuritzen genduan eta beste aldean korta egoan. Lehenengo pisuan, hiru logela eta lastatia; eta kamarotean patatak, kinpulak, sagarrak... gordetzen genduzan.

Eta zelan bihurtu zan baserria gaur egungo etxea?

Maizterrak ginan eta etxea orain dala 30 urte inguru erosi genduan. Arau subsidiario barriak indarrean sartu ziranean, esan euskuen hau nekazaritzako ingurua izatetik bizitegi gunea izatera pasauko zala. Beraz, baserriaren itxurea aldatu behar genduala eta ezin nebalana gauduagaz jarraitu. Beste lanbide bat topau behar izan neban eta lorezain egin nintzan.

Zenbat urte egin zendun ganaduagaz?

Hogeta hiru urtegaz hasi nintzan. Es-tudiatzen 18-19 urte bete arte egon nintzan, eta soldadutzea amaitu eta apur bat beranduago hasi nintzan etxean. Gero aita gaixotu zan eta nik hartu neban etxe-ko ardura guztia: animaliak, soloa...

Penarik emon eutsun bizimodu hori itxi behar izateak?

Alde batetik, bai. Hogeta hemeretzi urte nebazan garai hatan, familia bat, eta lan barik lotu nintzan. Baina beste alde batetik, baserriaren bizitzea ez jatan asko gustetan, oso gogorra zalako. Guk esnetarako behiak genduzan, eta goizean zein arratsaldean eratsi behar nebazala, urte-ko egun guztietan... Soloan esperientzia nebanez, lorezaintzan ahalegintzera ani-

“Baserria hainbeste urtetan polito egon ez danez, erabagi neban ordutik aurrera egongo zala”

“Batez be herritarren arteko senidetasunaren faltea sentitzen dot”

“Herriak dauan gauzarik txarrena da aireportuak bitan banandu dauala”

mau nintzan. Lehenengo urte biak oso gogorak izan ziran, baina apurka-apurka joan nintzan bezeroak lortzen. Autonomo egin nintzan eta sikiera jakin izan dot zer diran domekak. Familiari be denpora gehiago eskaini ahal izan deusat. Lorezaintzan jubiladu arte egon naz.

Ogibide polita.

Niri itzel gustetan jat. Eta ikusten do-zunez, hemen jarraitzen dot, lorategian-eta entretenitzen.

Izan be, oso etxe bitxia da zurea, kanpoaldea gitxienez. Nekazaritza eta abeltzaintzari lotuta dagozan eta ez dagozan elementuakaz apainduta, lora eta landareakaz, Loiuren gaineko erreferentziakaz... Zergaitik?

Lehen beti egoalako lohi. Badakizue, zelakoa dan baserriaren mobimentua: dana trastez beteta, satsa... Orduan, hainbeste urtetan polito egon ez danez, erabagi neban ordutik aurrera polito egongo zala.

Loiuztar peto-petoa, herriari erabat lotuta.

Bai. Pentsa eizue bertoko eskolan lau urtegaz hasi nintzala. Euskal dantzetan sartu nintzan, meza-laguntzailea izan nintzan, esku pelotan monitorea, kooperatibaren presidente ordea... Nik herria maite dot eta beti egon naz, era baten edo bestean, han eta hemen sartuta. Zer esango deusuet... Herria guztia da niretzat.

Herriko historia orain dala 10-15 urte hasi ziran jasotzen. Zerk bultzatu zinduzan horretara?

Loiuk aldaketa itzela euki dau, bai fisikoki, esate baterako aireportuaren eraginez, bai bere izaerari jagokonez. Eta pentsau neban inportantea zala gure historia gaur egunera ekartea. Ez dagoelako ondo hona bizi izatera etorri diranek ez jakitea Loiun orain dala 50 urte zer gertatu zan. Historia batzen hasi nintzanean ez neban uste emotea hainbeste urte lan hori egiten, baina egia da gero eta gehiago gustetan jatela. Gainera, emoten dau jenteari be gustetan jakola.

Zeren faltea sentitzen dozu antxina-ko Loiutik?

Gauza asko, eta batez be herritarren arteko senidetasuna... Gogoratzen dot baserri gehieneko ateak zabalik egozala, eta zure atletik baten bat pasatzen bazan, idiak bide erdian itxi, zigarroa biztu eta ordubete egon ahal ziniela berbetan, ardao edo ur apur bat edanda. Lan asko be auzolanean egiten genduzan: txarria hil, badarra batu... Orain ez dakigu nor bizi dan gure ondoan. Esentzia hori galdu egin da, Zabaloetxen behintzat, beste auzo ba-



Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

2018ko
lehen
delaldia



B2

Matrikula-epea:

Apirilaren 9-16 bitartean

Onartuen zerrenda:

Apirilaren 18an
Irakurmeneko eta entzumeneko
proben emaitzak:

Maiatzaren 9an

Idazmeneko proba:

Maiatzaren 12an

Idazmeneko emaitzak:

Ekainaren 15ean

Mintzameneko proba:

Ekainaren 21ean, 22an eta 23an

Emaitzak:

Uztailaren 11n

C1

Matrikula-epea:

Apirilaren 9-16 bitartean

Onartuen zerrenda:

Apirilaren 18an
Irakurmeneko eta entzumeneko proben
emaitzak:

Maiatzaren 9an

Idazmeneko proba:

Maiatzaren 12an

Idazmeneko emaitzak:

Ekainaren 15ean

Mintzameneko proba:

Ekainaren 28an, 29an eta 30ean

Emaitzak:

Uztailaren 11n



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierri.eu

Baserririk baserri, kontakizun bila

Jesusen ahaleginaren emoitza, besteak beste, honeek dira: urtean zehar Loiu gertatutakoa batzen daben eta urtero argitaratzen diran cd-ak, 36ko gerraren gaineko liburu bat, CD Loiuaren gaineko liburu eta cd-ak... Lanok Loiu laztana alkar-teagaz zein bere kabuz egin dauz. "Baserrik baserri eta etxerik etxe ibili nintzan argazki zahar bila eta akabuan 2.000 argazki baino gehiagoko artxiboa osatu neban. Argazkiez gainera, hainbat kontu eta pasadizo be kontatu eustezan. Auzoetan be informatzaileak dodaz eta zer edo zer gertatzen danean atoan deitzen deustie. Era berean, herrian egongo diran ekintzen barri emoten deustie Udaletik eta hara noa ni, grabagailua eta argazki-kamara eskuan... Foru Artxibategian izan naz, Bergarako artxibategian... Bestetik, Guardamino Loiu "jabe nagusia"- edo izan zan, baserri gehienak berarenak ziralak eta lurak be emon ebazan, adibidez, kooperatibea egiteko. Bada, bere

seme bategaz be banabil hartuemonetan, ea garai hatako dokumentuak itxiten deustazan".

Kontakizunak, bitxikeriak... asko gustetan jakuz, eta baten bat kontatzea eskatu deusagu. "Asko dagoz. Herritar batek, esate baterako, ia diru guztia galdu eban behin, idi-probetan jokatzen. Poltsikoan bost pezeta baino ez ebala, erabagi eban berdin jakola etxera bost pezetakaz edo diru barik itzultzea, eta loteria erosi eban. Bada, suertatu jakon; dirutza, garai hatan. Beste behin, 1951n, ikusmin handia sortu eban partidua jokatu eban Loiu Apurtuarteren kontra, Asuan. Apurtuarre lehenengo postuan egoan sailkapenean eta Loiu erditik-edo joian, eta dirutza jokatu zan. Bada, Loiu 0-5 irabazi eutsan Apurtuarteri. Egun horretan be dantzaldia egon zan Asuako plazan, baina hara ez zan azaldu ez Asuako inor, ez Erandioko inor. Guztiak loiuztarrak ziran. Asuako dantzaldia baino, Loiu jaiak ematen ebala dinoe".

*"Ez neuke herria
inondik inora
aldatuko.
Bertan bizitzea
pribilegio bat da"*

tzueta oraindino horrela jarraitzen dabelako. Esate baterako, Lauroetan, eta poztekoa da benetan.

Eta txokoren bat?

Bospasei urte nebazala abadeak telebistea erosi eban eta domeka arratsaldeetan bere etxera joaten ginan, pezeta bat ordainduta, telebistea ikustera. Eskolatik urten eta plazan olgetan gendun, edo frontoi zaharrean, eta euria bazan, eleiz atarian. Gero, 12 urte nebazala, Beti lagunak aisialdiko alkartea sortu zan, eta hasi zan herria ulertzeko beste modu bat lantzen: gazteak batzeko taberna antzeko bat atondu zan, euskal dantzen taldea osatu, idi-probak... Pentsa eizue, hau Bilbokoa izan zanean nahiko lotuta egon zan: ez egoan etxebizitza barririk eta gazte askok kanpora joan behar izan eben, aireportua zala-eta derrigorrezko desjabetzeak izan ziran... herriak sufridu egin eban. Baina 1982an, Bilbotik desanexionatu ginanean, udalbatza barria hasi zan lanean eta Loiu beste itxura bat emoten. Nahiko polito dago gaur egun.

Eskolea aitatu dozu. Non egoan?

Udaletxearen albo bietan; albo baten neskak egozan; eta bestean, mutilak. Bilbokoak izan ginanean hainbat ikastetxe pribadu egin ziran bertan. Ume gitxi egoan eta batzuk ikastetxe horreetara joaten hasi ziren. Eskolea desagertu egin zan, ez egoalako ume nahikorik eta egozanek Erandiora-eta joan behar izan eben. Gaur egun, Sondikara doaz.

Gaur egungo Loiu gustetan jatzu?

Bai. Eta izan zana be bai. Gauza asko dagoz gaur egun eta pentsetan dot horrela jarraitu behar dala. Laurehun etxebizitza barri egiteko asmoa dago eta hori kontrol apur bategaz egiten bada, gauza ona izango da, populazioa hazten dan neurrian, oinarrizko zerbitzuak joango diralako ipintzen. Lehen, esate baterako, harategi bat egoan eta arraina saltzera etorten ziran furgoneta baten... Gaur egun, ozta-ozta doguz farmazia bat eta banketxe baten sukurtsala.





Gauza txarrik badau?

Dauan gauzarik txarrena da aire-portuak bitan banandu egin daula herria. Ondorioz, Larrondoko jenteagaz ez dogu harremanik eta pena handia emoten deust, herri berekoak ez garala pentsau leitekeelako. Aireportua Loiu ipintzea beharrezkoa zan, eta desjabetzeak zelan egin ziran... hori beste kontu bat da.

Zelan gustauko litxakizu izatea etorkizuneko Loiu?

Gaur egun dan moduan. Apur bat handitzen bada eta jente apur gehiago badator, ondo; baina ez dot gura hona jentetza handia etortzea. Nire errutina hauxe da: etxetik urten, nasaitasuna, berdea ikusi... Zaratea gura dodanean Bilbora noa, baina atoan bueltetan naz, bertan nasaitasun itzela topetan dodalako.

Oso pozik nago nire herrian eta ez neuke inondik inora aldatuko. Bertan bizitzea pribilegio bat da.

Proiekturik?

Hil baino lehenago, Loiuako azken mendearen historia liburu baten jasotzea gustauko litxakit, herriak euki dauan aldaketea oso handia izan dalako. Ahalegi-na egingo dot ea argazki eta informazio gehiago lortzen dodan.

LO HARTZEN BADUZU, GALDU EGINGO DUZU

1000 euroa arteko balioa duten Hästens osagarriak lortu, baldin eta Hästens Superia edo Hästens Excel berria ORAINTXE BERTAN erosten baduzu. Osagarriak zeuk aukeratu ahal dituzu



ARGI IBILI LEHENDABIZIKO ALDIZ.
Hästens ohe bat erabiltzen baduzu jakingo duzu zer den loaldi bikaina. Oheak eskuz eginda daude, eta osagai naturalak erabiltzen.
Aldea nabarituko duzu. 24 orduan, egunean.

Bakartuta, 2018ko apirilaren 30era arte

Hästens 
SINCE 1852

HÄSTENS STORE BILBAO | DERIOKO SEMINARIOA, TELF. 944 541 963 | HASTENS.COM

Bertokoa indartuz egitasmoak emaitza ezin hobeak ditu Larrabetzun

Bertan uriko etxeetako % 40k hartzen du parte, eta iaz 65 tona hondakin organiko batu ziren orotara



Egitasmoak helburu bikoitza du: alde batetik, hondakin organikoak hobeto kudeatu eta euren errausketa ekiditea; eta bestetik, bertako nekazaritza bultzatzea. *Bertokoa indartuz* 2013ko urrian ipini zen martxan Larrabetzuko urian. Ekimenarekin 30 auzokidek, denda batek eta baserritar batek egin zuten bat garai hartan, eta gaur egun 212 etxe, hiru denda, bost taberna-jatetxe, hiru baserritar eta ekoizle handi bat, Azurmendi jatetxea, dira. Datuak onak dira parte hartzaileen kopuruari dagokionez ez ezik, sistema honen bidez batzen den hondakin organikoaren kopuruari dagokienez ere bai, kopuru hori urterik urte doalako handitzen. Horrela, 2014an 24 tona hondakin organiko bildu baziren, 2017an 65 tona batu ziren.

Hondakin organikoaren bilketa etxeko etxe egiten da astelehenetan, eguaztenetan eta barikuetan. Auzokideek ka-

lean uzten dituzte hondakin organikoak batu dituzten ontziak, eta baserritarrek horiek hartzeko ardura dute. Hondakinak euren baserrian duten konpostontzian sartzten dituzte, modu egokian tratatu ondoren, konposta lortzeko. Konposta ongarrizat erabiltzen dute ortuetan eta, beraz, zikloa Larrabetzun bertan hasi eta amaitu egiten da.

Hasieran aipatutakoez gainera, *Bertokoa indartuz* hondakin organikoak batzeko sistemak onura ekonomikoa ere ekartzen dio herriari, hondakinak batzeagatik Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateari diru -kopuru txikiagoa ordaindu behar diotelako. Horrela, errefusari lotutako ordaindu beharreko portzentajea % 7koa izan zen 2016an, eta iaz % 6, 7koa. Bestetik, Larrabetzuko Udalak 19.700 euro ordaintzen die baserritarrei hondakin organikoak etxeko etxe biltzeagatik; zabor-

bilketak kostatzen duen %10, hain zuzen ere. Egitasmoan parte hartzen duten uriko etxeen kopurua % 60ra igotzea nahi du Udalak, eta horretarako kanpaina bat ipini du abian. Interesa duenak Anguleri kultur etxean eman dezake izena.

Austriako eredua

Hondakin organikoak tratatzeko kezka 2011n sortu zen Larrabetzun. Herriko hiru lorategi pribatutan konpostontzi bat ipini zen eta 22 familiak hara eroan zituzten etxean sortutako hondakin organikoak urte bian. Ostean, 2012an, eskaera bat aurkeztu zen Bizkaiko Foru Aldundian, lurrak zituzten etxebizitzetan konpostontziak ipintzeko, eskolan konpost-egitea martxan jartzeko, eta gune bat antolatzeko, bertan inausketa-abarrak utz zitezen eta behar zuenak adar txikiak har zitzen. Hasieran 48 konpostontzi banatu ziren, eta hurrengo urtean, 30. Geroa Mankomunitatearen esku geratu zen zerbitzuaren kudeaketa.

Hurrengo pausoa urian konpost-egitea zelan ezarri izan zen. Egitasmo batzuk bisitatu ostean, aditu batekin ipini ziren harremanetan. Larrabetzuko tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuta, Austriako nekazaritzako inguru gehienetan erabiltzen den sistema hartzeko aholkua egin zien, hots, bilketa lehengai hori lanerako behar dutenek egitea: baserritarrek. *Bertokoa indartuz* egitasmoa horrela jaio zen.

Gaikako bilketa

Larrabetzuko Udalak bultzatu nahi duen beste arlo bat da auzoetan hondakinaren gaikako bilketa egokia egitea. Auzokideei erraztasunak emateko, auzoen sarreretan bost edukiontzi ipiniko dira, hondakin bakoitza dagokion edukiontzira bota dezaten. Azken bost urteetan, gaikako bilketa % 178 handitu da herrian eta gaur egun % 34koa da. Helburua % 50ekoa izatea da.



**LARRABETZUKO
UDALA**

www.larrabetzu.eus

URRATS BAT GEHIAGO

**Materia organikoa biltzea
indartu**

**Bost edukiontzidun gune
berriak sortu**



Minez, odolez eta maitasunez tindatuko burruka

t: Itxaso Marina / a: Z.G.

Alaitz Ziordia eta Txaro Bilbao Zapata Gorriak Zamudioko alkartearen osatzen dabenean 30 emakumeetarik bi dira. Azaldu deuskuen moduan, alkartearen munduko emakumeek jasotzen dabenezan ezberdintasuna eta indarkeria matxista salatzen sortu da, eta bere kideek ekarpena egingo dabe gaitz horreek desagerrarazoteko, eta gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna lortzeko. Helburuak betetzeko, besteak beste, honek bultzatuko dabez: emakumeen arteko alkartegintza eta koordinazioa, heziketa, ahalduntzea, eta bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean emakumeen parte hartzea.

"Lehenengoz 2016ko azaroaren 25aren inguruan batu ginen. Gero eta emakume gehiago hiltzen dabilkiguzala ikusi genduan eta zerbait egin behar zala pentsatu genduan. Gure lehenengo ekintza performance bat izan zan: baltzez jantzita lurrera bota ginen hil ebezan emakumeak irudikatzen. Eta horrela hasi zan mobimendu txiki bat sortzen".

Igaz, tailer batzuk antolatu ebezan eta bertan herriko dendetan batutako zapatak gorri margotu ebezan. "Deialdi zabala egin zan eta emakume pilo bat alkatu ginen. Zapata gorriak martxoan 8an egin genduan aldarrikapenean erabili genduzan". Chauveten artelanean moduan, zapata gorriak kalean, lurrean, ipini ebezan. "Kolora gorriak hilketek sortzen dabene mina adierazoten dau, odola, baina era berean gorria maitasunaren kolorea da, bihotzekoa".

Emakumeen egoera eta arazoak mahai gainean ipintzeko beharra ikusita, herriko beste alkatetza batzuk batu ziran, eta horreek antolatutako ekintza batzuetan hartu eben parte. Zapata Gorriak taldearen kideak barriro batu ziran azaroaren 25ean *mannequin challenge* bat egiteko. Hareekaz aurreko urtean baino jente gehiagok egin eban bat. "Ikusi genduan mobimendu txiki

ZAPATA GORRIAK ZAMUDIOKO TALDE FEMINISTA

Elina Chauvet "Zapatos Rojos" kaleko artelanaren egi-lea da. Egitasmoa Ciudad Juárez-en jaio zen eta Italia, Argentina eta Erresuma Batua bezalako herrietan errepikatu da. Helburua da muga geografikoak apurtu eta emakumeek pairatzen dabene indarkeriaren gaineko eztabaida piztea. Txorierriko Zamudioko emakume talde baten esku ailegatu jaku, bertan Zapata Gorriak alkartearen osatu dabelako.

hori handitzen joala eta Zamudion bae-goala jentearen gaiarekiko sentikorra zana. Jaieten-eta presentzia handiagoa eduki behar genduala erabagi genduan, eta aldarrikatzen egiteaz gainera, hasi ginen gure aldarrikapenak zabaltzen, esate baterako, Zamudioko azokan". Alkartearen legegalki eratzeko prozesuan dabil gaur egun.

Danon esku

Alkartearen ezberdintasun egoerak salatzen bozgorailua izango da, eta gogotsu egingo dau lan Zamudio eta Txorierriko emakumeen artean solidaritatea sustatzeko. Era berean, arlo guztietako emakumeak aritu dira lankidetzan, ekintza- eta komunikazio-sareak osatzen. "Begirada feminista dauan herria gura dogu, biztanle guztiek eskubide berberak dabenez herri bat. Horretarako, jardueraren hezigarri eta informatzaileen bidez, herri-tar guztiei zuzendutako kontzientizazio-



*“Gorriak hilketek sortzen
daben mina adierazoten
dau, odola, baina
maitasunaren kolorea
be bada, bihotzekoa”*

*“Begirada femisnista
dauan herria gura
dogu, biztanle guztiek
eskubide berberak
dabean herri bat”*

lana egingo dogu”. Halan, herriko eragile guztiakaz aritzeko asmoa dabe, hala nola kultura eta kirol taldeak, eskola, etorkinak, gazteak, ostalariak eta Udala. “Zamudio biztanle guztiontzat herri segurua izan daiten egingo dogu lan, eta emakumeok gune publikoan zein pribatuan seguru sentitu gaitezkan. Zamudio atseginagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzea espero dogu, biztanleriaren erdia bigarren maila batera zokoratzen ez dauan Zamudio bat, hain zuzen be”.

Martxoaren 8aren atarian gagozala, aurreratu deuskue herriko txoko baten beira-arasa bat ipintzeko asmoa dabela, eta bertara, hemendik aurrera, Euskal Herrian emakume bat hiltzen daben baktokxan zapata gorri bat sartuko dabe. Bestalde, egun horretan dantza ekitaldia egongo da eta Kamara Koralak be eskainiko dau saiotxoa. Ostean, alkarretaratzea egingo dabe.

Etorkizunari gogotsu eta indartsu begiratzen deusie, eta hainbat ekintza antolatzeke asmoa dabe: saio hezigarriak eta emakumeak ahalduntzea helburua dabenak, herriko puntu baltzak aztertu eta jasotako prestakuntza alkarteetan, auzoetan, dendetan, eskolan... zabaltzea. “Azken baten, danon arazo eta ardurea da, eta guztion esku dago egoerari buelte emotea”. Alkartea 37 urtetik 64 urtera bitarteko 30 emakumek osatzen dabe. Emakume gehiagorengana heltzea be gustauko litxakie; emakume gazteengana batez be.



sarreraren salmenta
www.bbk.es
bbk



Bizkaia
2018ko Kultur Etxea
2018ko Kultur Etxea



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

2018ko Kultur Etxea



CAVERNICOLA
AG 88' (3D)
Martxoak 4, 17:00 (BISKARAZ)



EL CUADERNO DE SARA
88-14 118' (3D)
Martxoak 4, 19:30



LA ABEJA MAYA 2: LOS JUEGOS DE LA MIEL
AG 84' (3D)
Martxoak 11, 17:00 (BISKARAZ)



LA FORMA DEL AGUA
88-13 123' (3D)
Martxoak 11, 19:30



UNA FAMILIA FELIZ
AG 92' (3D)
Martxoak 18, 17:00



SIN RODEOS
88-13 87' (3D)
Martxoak 18, 19:30



EL HIJO DE BIGFOOT
AG 92' (3D)
Martxoak 25, 17:00 (BISKARAZ)

LADY BIRD
87' (3D)
Martxoak 25, 19:30












a: Idoia Andrés

Mobimendu feministak grebara deitu dau martxoaren 8rako mundu mailan, eta Euskal Herrian be plantoak eta lanuzteak egongo dira. Mobimenduak emakume guztiei, etxean zein etxetik kanpo lan egiten dabenei, luzatu deutsee gonbidapena ekimenagaz bat egiteko, euren lanaren balioa eta beharra ikusgai ipintzeko. "Emakumeok arrazoi asko doguz planto egiteko", esan deuskue Alaitzek eta Txarok, maila pertsonalean. "Indarrean dagoan eredu ekonomikoak zapaldu egiten gaitu. Gizonezkoen lana hobeto dago baloratuta eta alde handia dago euren eta gure soldaten artean.

Txorierriko emakumee

Gainera, emakumeok egiten doguzan lan asko etxeari eta zainketari dagoz lotuta eta ez dira balioesten. Gizarteak amatasuna goraipatzen dau, baina lan merkatuak amak zigortzen dauz. Gure pentsioak baxuagoak dira... Eta indarkeria matxistak hil egiten gaitu". Datu ofizialen arabera, Estatuan 923 emakume hil dabez Estatuan 2003. urtetik hona; 43, Hego Euskal Herrian. Halanda be, kopurua handitu egiten da beste iturri batzuetara joten bada. "Sexu-esplotazio handia dago, etengabeko sexu-

erasoak arlo pribaduan zein publikoan, emakumeok bildurrean hezten gaitue, guk esandakoa zalantzan ipintzen da, Objektu bihurtu gaitue eta estereotipatuta gagoz komunikabideetan, solasaldietan, erakundeetan errepikaten diran roletan. Politikan dogun papera be ez da gizonena bezain garrantzitsua eta eguneroko ikusten dogu ezberdintasuna, edozein arlotan".

Bai, asko dira mobimendu feministaren deialdiagaz bat egiteko arrazoiak. Txorierriko alkarte feministek (Koxak,

Loiu

Martxoak 9, barikua

- 14:00 Adierazpen instituzionala.
- 14:30 Bazkaria.
- 17:00 Dantzaldia.
- 18:00 Karaokea.

Larrabetzu

Martxoak 8 eguna

- 12:00 Elkarretaratzea, herriko plazan.
- 12:45 Auto karabana, Sasine industria-gunetik.
- 20:00 Bilboko manifestaziora.

Martxoak 9, barikua

- 19:00 *Karramarro* antzerki saioa, Anguleri kultur etxean.

Martxoak 11, domeka

- 17:30 Gazteentzako rap tailerra, Hori Bai gaztetxean.
- 19:00 La Basuren kontzertua, Hori Bai gaztetxean.

Martxoak 22, eguna

- 18:30: "Larrabetzuko emakume kirolariak" mahai-ingurua, Angulerin.



Derio

Martxoak 6, martitzena

- Las mujeres decididas* dokumentala, Kultur Birikan.

Martxoak 8, eguna

- 17:00 *Volar* bideo foruma, Kultur Birikan.

Martxoak 11, domeka

- 11:00 "Derio berdintasunaren alde" martxa, frontoian.

Zamudio

Martxoan, Marchinlilac kanpaina, liburutegian.

Martxoak 6, martitzena

- 19:30 *Erbeste edo saihets baten aldarrikapenak* antzezlan, Zamudiotarren.

Martxoak 8, eguna

- 12:00 Elkarretaratzea, S. Arana plazan.
- 19:00 Elkarretaratzea, Kultura Etxean.
- 19:15 Beira-arasa ipini, dantzak eta musika saioa, Kultura Etxean.
- 19:30 *Pantxika Lamur* antzezlan eta kopa, Zamudiotarren.

Martxoak 9, barikua

- 18:00 Berdintasunaren aldeko tailerrak, Ludoitekan.

Martxoak 10, zapatua

- 11:00 Neskentzako autodefentsa tailerra, Kultura Etxean.

Martxoak 11, domeka

- 10:00 Emakume Master Cup, frontoian.

ERREKA
HIT & DONO
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jeunartzeak, familien bazkariak

Artsaga, 80
Zamudio 48170 (Bikaila)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Enaitz
TABERNA

Digitalartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

k be planto!

Derion; Zapata Gorriak, Zamudion; Moreak, Lezaman; eta Zutunik!, Larrabetzun), taldeek eta erakundeek ekintzak antolatu dabez Martxoaren 8rako. Ziur asko, ale hau itxi orduko, orri honeetan batu doguzanak ez dira izango diran guztiak; beraz, adi egon datozan egunotan. Gainera, aitatu beharra dago Txorierriko mugimendu feministak emakumeen auto-karabana bat antolatu daua. Auto-karabana horrek emakumeen errendikazioak eroango dauz bailarako txoko guztietara.



Lezama

Martxoak 2, barikua

–18:30 *Antonia's line* zine foruma, Uribarri topalekuan.

Martxoak 8, eguna

–12:00 Emakumeen elkarte zaratatsua, herriko plazan.

–12:30 Txorierriko emakumeen auto karabana.

–17:30 Berdintasunaren aldeko tailerrak, ludotekan.

–19:00 Elkarretaratzea plazan.

–19:00 *Goazen* telesaila aztertuz, Gaztegunean.

–20:00 Bilboko manifestaziora.

Martxoak 9, barikua

–20:00 Ausartak herriko taldearen *Burbujas conservantes* antzezlan, Kultura Aretoan.

Martxoak 10, zapatua

–08:30 Emakume izena dauan Anboto mendira urteera, plazan.

Martxoak 16, barikua

–19:00 "Bihotzekoa emakumeengan" berbal dia, Kultura Aretoan.

Sondika

Martxoaren 1etik 31ra

–"Emakumea Indian" erakusketea, liburutegian.

Martxoak 16, barikua

–19:00 Musika aztertzeko tailerra, gazte-txean.

2018 martxoak 25

XVII. TXAKOLINAREN EGUNA larrabetzu

Antolatzailea: www.larrabetzu.eus

Loguntzaileak: bbk0

betiko txakolingileen omenez



“Guztiok gara irudia”

IÑAKI MOLANO | ile-apaintzailea

Derioztarra Bizkaiko Irudi Pertsonalaren elkartearen idazkaria da. Berarekin sektoreari buruz eta gaur egungo joerari buruz aritu gara.

t/a: Itxaso Marina

Zein da elkartearen eginkizuna?

Bizkaiko gizonezkoen ile-apaintzaileen elkarte gara eta batez ere gizonezkoen ile-apaintzeta garatu eta bultzatzea dugu ardura. Era berean, erantzuna ematen diegu bazkideen arazoei, ikastaroak antolatzen ditugu, txapelketak... eta antolatzen gara gure errebindikazioak kalera ateratzeko, esate baterako, BEZa jaitsi dadila. Nire ustez, sektoreak elkartu behar du, horrela guztion artean indar gehiago edukiko dugulako gure errebindikazioei heltzeko. Batzuek uste dute gastu bat dela, baina inbertsio bat da.

Zelan dago sektorea?

Txarto, emakumezkoen ile-apaintzeta moduan. Pentsa ezazue aldi berean hiru krisi bizitzen ari garela: alde batetik, krisi orokorra, guztiongan eragina duena, handik ateratzen ari garela dioten arren; bestetik, eskaintza eskaera baino handiagoa da, orain ipintzen ari diren ile-apaintzeari berri horiek direla-eta; eta azkenik, BEZaren kontua. Krisi betean gaudela % 8tik %

“Hiru krisi ditugu aldi berean: orokorra, eskaintza eskaera baino handiagoa izatea, eta BEZa”

21era igo digute BEZa, eta guk, dagoen egoeratik, ezin diegu gure bezeroei igo... Beraz, igoera guk bakarrik “jaten” ari gara oso-osorik.

Ile-apaindegiek eta edertasun zentroek kalitateko Q-a lortzeko batzordean zaude. Zein da helburua?

Sektorea ez dago araututa eta nahi duen guztiak, prestakuntza eduki barik, ile-apaindegi bat zabaldu dezake. Eta kontuan hartu behar da guk produktu kimikoak erabiltzen ditugula, artaziak, labanak... Gure helburua da Bizkaiko establezimendu guztiek Q-a eskuratzea, negozio bat ireki ahal izateko, Q-a eduki-

tzea beharrezkoa izan dadila. Bereizgarri horrek bermatu egiten duelako baldintza legalak, teorikoak, higienekoak, prestakuntza arlokoak... betetzen direla.

Irudi batek 1.000 hitzek baino gehiago adierazten du.

Irudia denetarako da baliagarria. Besteek zelan ikusten gaituzten zehaztuko du, baita gu zelan sentitzen garen ere. Gure burua ondo ikusten badugu, gure egoa handituko da, gusturago egongo gara eta gauza gehiago, eta hobeto, adieraziko ditugu. Azken baten, guztiok gara irudia.

Euskaldunok zaintzen dugu gure irudia?

Denetarik dago. Orain dela urteak, gizon eta emakume euskaldunek arroparik eta orrazketarik doterenak eroaten zituzten penintsulan; eta italiarrekin batera, Europako hegoaldean. Bilboko emakumeek arropa eta beroki dotoreak janzen zituzten, eta oso orrazketa landuak eroaten zituzten. Gaur egun ez dira ikusten halakorik. Gizonak ere oso dotore janzen ziren. Eta oraindik badago nagusiren bat kalera dotore-dotore irteten dena.

*“Gizarte-sareak
erakustoki ezin
hobea dira gure lana
besteei erakusteko”*

Zenbat urte daramatzazu negozioan?

Bizartegia aitzak zabaldu zuen orain dela 42 urte. Ni erraztatzen eta bezere bati ilea garbitzen etortzen nintzen, eta pixkanaka-pixkanaka sartu nintzen ogibidean. Hamahiru urte nituela hasi nintzen ile-apainketa ikasten, eta titulu atera nuenean hasi nintzen aitari laguntzen. Hogeita zortzi urte pasatu dira handik hona. Aitzak duela urte bi eta erdi hartu zuen erretiroa, eta erabaki nuen ile-apaindegiaekin neuk jarraitzea. Krisian egonda aukera bi nituen: edo behera jozten nuen, edo igotzeko ahalegina egiten nuen.

Ile-apainketa asko aldatuko zen 28 urte horietan.

Izugarri. Batez ere ile-moztea. Gaur egungo modei esker, landuak dira berriro; izan ere, egon zen garai bat non berdin zigun ilea bikoteak edo lonjako lagunak moztzen bazigun. Eta ez zen bakarrik ekonomia; moda hori zen eta kito. Gazteak gizarte-sareetan dabilta orain, ile-mozteak ikusten dituzte, koloreak, marrazkiak... eta eskatzen dizute.

Nortzuek ezartzen dituzte joerak?

Bizarginen arteko bataila

Itakik hainbat txapelketatan hartu du parte, baita bizarginen arteko baitaletan ere. “Hegoamerikatik ekarri den ekintza bat da. Proba ezberdinak egin behar dira: lausotuak, kolorea, marrazkiak, hair tatto, ile-moztea artaziak erabilia egitea... Kategoriak ere badaude: gazteak, estilo librea, emakumezko bizarginak...”. Azaldutakoaren arabera, halako batailak Estatuko hainbat herritan egin dira, baina gure

inguruan ez dira inoiz antolatuta. Horregatik Gasteizko lagun batekin hitz egin eta animatu dira bertan bizarginen arteko bataila bat antolatzen. Hitzordua apirilaren 22an izango da. “Oso ekintza polita da. Probetarako zure burua oso ondo prestatu behar izateaz gainera, jende pilo bat eta euren lan egiteko era ezagutzeko aukera duzulako”. Informazio gehiago: www.barberbattledelnorte.tk.

Pertsona zehatzik ez dago, askotan modaz ez dakien baten bat izan daiteke. Diseinatzaileak eta marka komertzialak alde batera utzita, badago errealitate bat ibiltokian ez dagoena: egunez egunekoa. Edozeinek igo dezake bere argazki bat gizarte-sare batera, eta handik egun bira lortu bere zapatilak, prakak, ile-moztea... modan egotea. Bestetik, futbolariak ere ezartzen dituzte joerak.

Ile-apaintzaileek etengabeko prestakuntza beharko duzue, hain aldakorra den modari heldu ahal izateko.

Bai, gaur baliagarria denak bihar ez duelako balio. Edo aldrebes. Gainera, tresna berrien funtzionamendua ezagutu behar dugu. Ni irakaslea ere banaiz, eta ilea mozteko teknikak izugarri aldatu dira. Era berean, gizarte-sareak erakustoki ezin hobea dira gure lana besteei erakusteko, eta ikus dezaten etengabeko prestakuntza

horretan gabiltzala murgilduta, hobetzea eta bezereari zerbitzurik onena eskaintzeko.

Zein da joera udaberri-udarako?

Oso ile laburra beheko aldean, lausotuta goiko aldeko ilearekin, eta, pertsonaren gustuaren arabera, goiko aldeko ilea luzeagoa edo laburragoa. Ile-mozte hori joera da orain dela urte batetik hona, eta joera izaten jarraituko du. Lerrotxo edo marrazkitxoren bat ere egin daiteke, jendeari modari jarraitzea gustatzen zaio, baina aldi berean apur bat ezberdina izatea ere bai.

Bizarra ere ipini da modan.

Bai, asko. Guk bizarra egiten eta apaintzen dugu. Askok aldatu da bizarraren moda. Orain dela urte batzuk hipsterren bizar luzeak zeuden modan; eta gaur egun, bizar laburrak. Ondo apainduak eta hidratatuak.

 **bertako**
igogailuek | ascensores
igogailuen mantentze-lanak
LARRIALDI TELEFONOA DOAN
www.bertako.eus
info@bertako.eus
946 52 39 35

24 orduko asistentzia abisu guztientzat 
Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak
Orotariko zerbitzua **100 €-tik aurrera**
Euskarazko zerbitzua

Primeran pasatu dugu!

Urtero legez, Inauteriak gogo biziz ospatu dira Txorierrri osoan zehar. Bai, ospe handiena dutenak Sondikakoak dira, baita jendetsuak ere, baina hurrengo argazki bilduman ikusiko dugun moduan, Lezaman, Derion, Zamudion, Loiun eta Larrabetzun ere irten dira kalera, nork bere mozerroa erakustera eta, batez ere, disfrutatzerara. Eta eguraldia lagun izan ez arren, helburua bete dugu, ederto batean ibili garelako!



Loiu. a: Loiuko Udala



Lezama. a: Lezamako Udala



Sondika. a: Sondikako Inauteriak elkartea



Sondika. a: Sondikako Inauteriak elkartea



Zamudioko tostada lehiaketa. a: Zamudioko Udala



Sondika. a: Sondikako Inauteriak elkartea



Larrabetzu. a: Idoia Andrés

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Larrabetzu.
a: Idoia Andrés

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

Pelukeria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2, Gela Larrabetzu Buzkara



Derio. a: Derioko Udala

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkorrak
Hainbat tarta

Sarikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Elena M^a Rodriguez Seoanek *Manual de enfermería en adicciones a sustancias y patología dual* liburua ateratu barri dau, Araceli Plaza Andrésegaz batera. Biak dira adituak buruko gaitortasunean. Larrabetzuko erizainak azaldu deuskun moduan, liburua osasunlangileei ez eze, gaian interesa dauen edonori ere dago zuzenduta. "Gurasoentzat eta institutuko irakasleentzat ere gomendagarria da".

t/a: Itxaso Marina

Elenaren esanetan, gaur egun arte arlo horretan argitaratutako liburuak diagnostikora egon dira zuzenduta, eta esku artean doguna lehenengoa da drogaren gainerako informazioa zabala ematen dauena. Horrela, bada, gehien hartzen diren drogen efektuak azaltzeaz gainera, drogen ondorioak ere aipatzen ditue, eta zer gertatu daitekeen beste substantzia batzuk nahastean badira. Era berean, eta atal banaka batzuk aipatzearren, adierazten eta mendeotasun motak jasotzeko dabe-

Gaur egun modan ipini diren drogak ere aztertut dabez, esaterako "droga kanibala" eta ayaguaska



buruan, larrialdietan arreta, zaintzak, intoxikazioa, arriskuak eta ondorioak murrizteko hezikuntza sanitarioa, patologia duala eta bere diagnostikoa, eta bilakareak. Aztertut dituen drogen artean, ohikoek gainera –esaterako opioideak, kokaina, LSDa eta cannabis– orain dala urte batzuk modan ipini direnak ere badagoz, esate baterako "bainu-gatzak" edo droga kanibala, eskopolamina edo burundanga, ayaguaska eta "sapitoa".

"Burmuinean sartzen danean, drogak oso ongizate handia sortzen dau, ase gaituen edo gustetan jakuzan ekintzek eragiten deuskuezanak baino askoz han-

diagoa dana. Ondorioz, burmuinak eta beste organoek itxi egiten deusie ongizate hori eragiten, modu artifizialean noiz sartuko zain dagozalako", esan deusku Elenak. "Akabuan, mendekoek droga hartu baino ez dabe gura. Eta ezin dabenean, oso autoestimua baxua dabe, oso triste dabilz... Horrek guztiak droga barriro hartzera bultzatzen dauz".

Elenak argi itxi deusku mendekoak ez dirala biziotsuak, gaixotak baino. "Ikerketek frogatu daben moduan, burmuinak errezeptore batzuk dauz substantzia opioideotarako eta cannabioideotarako. Substantzia horreek mina kentzen dabe

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe Kalea, 12 beheko Orio 48180
94 454 03 86

639 57 98 48 – 639 58 25 47

HAUR-MODA

TxIMELETA

Gemikako Arbola, 8 DER30
94 454 14 35

ELORRIETA

Gasteiz, 33 bis LEZAMA
620 15 35 93 – 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolarpi.com
solarpi.zaldiregia@gmail.com

ixotasuna



*“Jenteak ez dau
bizioagaitik
kontsumitzen,
gaixotzen diralako baino”*

eta lasaitasuna eragiten dabe. Ondorioz, ikusi zan jenteak ez ebala bizioagaitik kontsumitzen, gaixotzen ziralako baino”. Drogen beste ondorioa buruko gaixotasunak dira. “Aldez aurretik buruko gaixotasunik ez ebenak gaixotzen zirala ikusi zan, eta



psikotikoen egoera larriagotzen zala droga hartzen baeben”. Joera genetikoa be erabagiorra da, horren arabera buruko gaixotasuna sortuko dalako droga kontsumitzaile batzuegan, eta ez beste batzuegan.

Buruko higieena

Batez be gazteak dira babesbakoenak drogen aurrean. “Euren burmuinak eragin handiagoa jasaten dau eta ez dira ikasketak amaitzeko gauza, ezin dira lan merkatura sartu...”. Elenaren eritxiz, ordua da gobernuak adituei eta zientzialariei entzuteko, eta drogazaletasunaren aurka benetako neurri eraginkorrak hartzeko. “Islandiak hartu dauzan neurriak, adibidez. Hamasei urtetik beherako gazteek, neguan, ezin dira gabeko 10etatik aurrera etxetik kanpo egon; eta gabeko 12etatik aurrera, udan. Eskolaz kanpoko ekintzak be badagoz, derrigorrezkoak diranak: musikea, kirola, dantzea... Gurasoek seme-alabakaz ikasi behar dabe, gazteak hezitea guztion ardurea dalako: irakasleena, pedagogoena eta aitena eta amena. Gazteek drogek eragiten daben

Profesionala

Elena Mª Rodríguez Seoane erizaina da, eta Buruko Osasunean aditua. Zamudioko Ospitale Psikiatrokoan 1983. urtetik hona egiten dau lan, eta ikastaroak emoten dauz unibertsidadeetan, administrazioetan, profesionalen alkargoetan eta zientzia sozietateetan. Psikotiko kronikoen eguneko ospitale bat kudeatu dau bost urtean, eta tutoretzapeko etxebizitzak eduki dauz bere ardurapean, hiru urtean. Hainbat artikuluren eta libururen egilea, interes berezia dau honakootan: herritarren beharrianak eta zaintzak, buruko gaixotasunaren prebentzioa, eta giza baliok.

gaitza ezagutu behar dabe, eta hobe dala gauza batzuk ez probatzea. Droga-trafikatzaileen atzetik sendotasun handiagaz be ibili beharko litzateke”.

Bestetik, larrabetsuarrak ezinbestekotzat jotzen dau umeak eta gazteak elikadurari, higienari eta buruko osasunari lotutako ohitura osasuntsuetan hezitea. “Buruko higieena funtsezkoa da. Gure buruagaz eta egiten dogunagaz pozik egoten ikasi behar dogu. Hausnarketa egin behar dogu eta gure buruari galde-tu zergaitik ez gagozan pozik. Besteokaz enpatikoak izatea be nahitaezkoa da”. Liburua ohiko liburu-dendetan ipini dabe salgai.

*“Gazteek drogek
eragiten daben gaitza
ezagutu behar dabe,
eta hobe dala gauza
batzuk ez probatzea”*



Bitcoina eta Blockchaina

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Azken hilabeteetan, *bitcoin* txanpon elektronikoaren kotizazioa zenbat aldiz igo den entzun dugu hedabideetan, berorren burbuilaren olatuan aberastu den jendearen berri eduki dugu, *dark web* edo sare iluna delakoan edozein ankerkeria ordaintzeko erabiltzen dela entzun dugu... *Big Bang Theory* telesailaren saio batean ere agertu da eta Irune Lasak horren inguruan hitz egin digu *Berrian*⁽¹⁾. Baina zer dira *bitcoin*a eta bere atzean dagoen *blockchain* teknologia?

Satoshi Nakamoto⁽²⁾ ezezagunak sortu zituen biak batera 2008an, eta 2009an hasi ziren mugitzen. *Blockchain* teknologiak modu ziur eta deszentralizatu batean kudeatu eta gorde dezake edozein informazio era. Eta informazio horrek aldaketaren bat jasaten badu, hori ere gordetzen du. Adibide bat ipinita errazagoa da ulertzen, beharbada. Demagun ogia erosi nahi dudala, baina diru arrunta erabili beharrean, *elektxanp* dirua darabildala: 12345 zenbakia duen *elektxanp*-a nire poltsiko elektronikotik hartu eta okinari eman diot, eta berak bere e-poltsikoan gorde du. Nork bermatzen du bion artean adostutako *elektxanp* horrek beste transakzio baterako balioko duela? Eta berriro erabili ahalko dut nik?

Diru "arruntaren" kasuan⁽³⁾, banku zentralak ematen dute bermea; eta diru elektronikoaren kasuan –kreditu txartelak, adibidez– norberaren bankuak. Kripto-txanponei dagokienez, transakzioa sarean eta bata besteari konektatuta dauden hainbat eta hainbat nodotan gordetzen da zifratuta, *blockchain* edo bloke-kate teknologia erabiliz. Erabilitako 12345 *elektxanp*-a berriz erabiltzen saiatzen banaiz, kontsulta egingo da hainbat nodotan eta horiek iruzurra salatuko dute. Baina, bestalde, okinak txanpon hori beste transakzio baterako erabil dezakeela ziurtatuko dute.

Lehen aipatu bezala, *blockchain* teknologiak edozein informazio gordetzeko balio du. Informazioa zifratuta gordetzen da kable publiko eta pribatuen sistema bat erabilita⁽⁴⁾. Sistema horrek nahi beste kable publiko eta pribatu eduki ditzake, informazioa hainbat nodotan gordetzen

a: tynmedia.com



Kripto-txanponen transakzioa sarean eta hainbat nodotan gordetzen da zifratuta

denez nodo gehienak pirateatu beharko liratekeelako iruzurra egin ahal izateko. Gainera, nodo kopurua oso altua denez, ezinezkoa da hori birtualki egitea. Bestetik, kontrola ez da erakunde, enpresa, talde edo gobernu bakar batena, baizik eta guztiz deszentralizatuta dagoen sistema batena. Hau da, ez dago autoritate berezia duen nodorik; sarean dauden nodo guztiek dute erabakitze ahalmena.

Automobilgintzan, horniketa-katean, gero eta hedatuago dago teknologia horren erabilera⁽⁵⁾, eta medikuntzan⁽⁶⁾ ere bai, adibidez farmako baten saiakeran gardentasuna eta fidagarritasuna bermatzeko. Kripto-txanponen transakzioetan ez da bitartekaririk behar, ezta erakunde bermatzailerik eta, ondorioz, merkeagoak –edo dohainik– dira. Hauteskunde prozesu batean, autoritatea nodo sarearena

denez, gobernu batek ezin izango lituzke emaitzak lapurtu edo ezkutatu, edo pertsona batek botoa bi aldiz eman... Ezin da manipulatu, onerako zein txarrerako.

UBS, Deutsche Bank, Santander, BNY Mellon eta ICAP bankuak *settlement coin* deitzen den kripto-txanponarekin hasi dira lanean⁽⁷⁾. Baina horren blockchain nodo guztiak euren kontrolpean egongo dira, deszentralizazio zentralizatu baten teknologia baliatuta, baina ez horren filosofia...

Mr Robot seriea badabil honen inguruko hausnarketa egiten⁽⁸⁾... Zientzia fikzioa beste behin etorkizun hurbila aurreikusten?

(1) Iraultza berria... edo burbuila berria, @IruLasaA, Berria.info, <https://goo.gl/qmdwWV>

(2) La última teoría de quién es Satoshi Nakamoto, @gabriela2400, genbeta.com, <https://goo.gl/skzh1k>

(3) Salgai dirua eta diru fiduziarria, wikipedia, <https://goo.gl/bqGmT8>

(4) Julio Zesar edo MZOMR CHXDV. Zein da segurua-goa?, zientziakaiera.eus, @xa2, <https://goo.gl/dfuu9H>

(5) Blockchain for automotive supply chain, Matthew Jones, ibm.com, <https://goo.gl/KVHMTW>

(6) Blockchain is good for your health, ando your business, IBM, <https://goo.gl/1HufcH>

(7) Settlement Coin' is All About Banks, Not Blockchain, Frances Coppola, coindesk.com, <https://goo.gl/hvqrjS>

(8) Mr. Robot y bitcoin: lecciones sobre el presente y futuro de la criptomoneda, Jaime Sandoval, criptonoticias.com, <https://goo.gl/RcxZ24>

Arrue pintorea eta Txorierriko bendejerak



(*) Iñaki Esparza historialari jakitunari, esker ona zor.

t: Juan Luis Goikoetxea

Honi artikulatuoni erraz jarraitzeko, irakurle, alboan dituzun iragarkiei begiratzea komeni zaizu. Honela dakar Abaituarenak:

LICORES ABAITUA ACEITES
CASA FUNDADA EN 1830. BILBAO
LA BOTICA DE ABAITUA
CONVERSACIÓN DE VÍSPERAS DE SAN
SIRILO OIDO DE PASADA EN SARATAMO.
-AGUR ZARRAK ANDE VAIS
CON PARAGUAS Y CON SESTAS?
-A BILBAO PA UNOS RECAOS
IR VAMOS A HASER YO Y ÉSTA,
PORQUE NO SÉ SI SABRÉIS
QUE MAÑANA HASEMOS FIESTA...

Txorierriko bendejerak –zure amama edo birramama– Zazpi Kaleetara joaten zirenean, holako iragarkiak aurkitzen zituzten karteletan, erdara barregarrian idatzita, euskaldunen kontura barre egiteko. Horren ondorioz-eta zabaldu izan da betiko euskaldunen artean euskararen aurka-ko iritzia: euskarak ez duela inorako balio edo etxetik irteteko erdara jakin beharra dagoela.

Berez, XVI. mendean ia Cervantesekin hasi eta XX. mendeko azkenetara arte, el vizcaíno –euskaraz egiten duena– figura komikoa izan da antzerkian eta komedietan gaztelera txarto egiteagatik. Geroago, mutilentzat burlagai itzela zen erdara bari-rik soldadutzara joatea. Hala ere, geure



Bilbon euskaldunei beste euskaldun batzuek burla egitea askoz krudelagoa da, batez ere, arlotada bidezko irainetan.

Ohartzen garenez, diglosian bizitzea –euskaraz etxean, frontoietan edo elizan eta gaztelera administrazioan– ez da beti eroso gertatu, ze dendetan ere LA BOTICA DE ABAITUAN^(*), kasurako, arrotza zen euskalduna.

Niri neuri harrigarri gertatu zait Arrue pintoreak bere pintzel sentibera holako poster iraingarrietarako erabiltzea, zeren jakin beharko zukeen: “Edozein hizkuntzak, bere hitz edo berba bakoitzarekin, mundu bat pintatzeko balio duela”.

Eskerrak Abaitua anaien ondorengoak iragarkiak euskaraz idazten hasi zirena.

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA
6 PAUSOTAN
ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai euskarari
Ziurtagiriaren Elkartea

baleuskarari.eus
/baleuskarariziurtagiria
@baleuskarari

Lan eta bizi euskaraz

ASADOR FUENTENE berria
"lor eta itsasoko hasierria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Oihela eta arraina
txingarrietan erretia

LEKUNBI (BIZKAIA)
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

BC FUN Fitness Gym

Saio pertsonalizatuak, entrenatzaileen eskutik

BCF entrenamendu funtzionala gunea (HIIT makinak, kardia funtzionala...)

Taldeko BCF saioak (zikloa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak (high intensity eremua, indoor traila...)

BCF muskulazioa

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. lursaila, Ugaldaguren II
48170 ZAMUDIO



Txokolatezko *brownie*-a, mikrouhin-labean egina

a: www.taste.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 125 g txokolate baltza
- 3 arrautza
- 100 g azukre
- 125 g gurin
- 70 g urun
- 8 g legamia
- Koilarakada bat kakao-hauts
- Hiru koilarakada esne

Prestetako errea:

Txokolatea eta gurina dadotan ebagiko doguz eta potentzia erdian

berotuko doguz mikrouhin-labean, 30 segundotan. Handik atera, eragin eta berriro berotuko dogu, 20 minutuan. Beharrezkoa bada, txokolatea eta gurina ondo urtu arte berotuko dogu. Ondo nahastuko dogu.

Arrautzak ontzi batera botako doguz. Azukrea gehitu eta irabiauiko doguz. Txokolate urtua eta esnea botako deuseguz eta nahastuko doguz. Bestetik, uruna, legamia eta kakao-hautsa nahastu eta txokolateari botako deuseguz. Dana ondo nahastuko dogu eta mikrouhin-labarako molde batera botako dogu. Moldea gurinaz igurtziko dogu alde zurretik. Mikrouhin-laban bost minutuan eukiko dogu, 750 W potentzian.

Ettxeko sukaldaritza

Makarroiak, txanpiñoiakaz eta Cherry tomateakaz

t: Maite Lekerika / a: www.icondiet.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 300 g makarroi
- 200 g txanpiñoi (xerretan ebagiak)
- 4 berakatz-atal
- 125 g Cherry tomate
- Oliba-orio zurrusta bat
- Gatza

Prestetako errea:

Makarroiak betiko moduan egosiko doguz. Tomateak garbitu eta dadotan ebagiko doguz. Berakatzak oriotan frijiduko doguz. Gorritzen hasten diranean, txanpiñoak gehituko doguz. Minutu bian eukiko doguz frijitzen eta tomateak gehituko doguz. Gatza bota eta makarroiakaz nahastuko doguz. Berotu eta mahaira atera.





EGUNEKO MENUA

lehengazko platera
bigarren platera
postrea
ingia
ndarra

9€

Bastorene 5, Bihua 48160 DEIRO
T: 94 454 55 55

Abelino Arraindegia



Gorbea kalea, 4 - 48160 DEIRO
T: 94 602 75 25-6





LARRABETZU

☎ 94455 81 97

LOROÑO BEHEKOA

(BIZKAIA)

GAMINIZ

JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com


Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irduiak margotu eta moztu ahal dituzu

www.pasatiemposinfantiles.es




Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk (Elkar), Joxe Azurmendi.

–Arbasoen ituna (Erein), Toti Martineze de Lezea.



LITERATURA: GAZTEAK

–Zenbakiak asmatzen (Pamiela), Gianni Rodari, Alessanso Sanna (il.).

–Dinosauroak (Ttarttalo), Natacha Scheidhauer-Fradin.

MUSIKA

–Margolaria (Elkar), Mikel Urdangarin.

Sudokua

	5	6					3
				8			
	3	9	4				2
	8						
	1		8		2		6
					6		4
		8	5				
	2			1		5	9
4						6	3

8	1	9	8	2	5	6	7
6	8	5	7	1	9	2	3
2	7	2	3	6	5	8	9
7	6	8	9	3	1	2	5
2	9	3	2	5	8	7	1
1	5	2	6	7	2	3	9
5	2	1	2	9	7	6	3
9	2	6	5	8	3	1	7
8	3	7	1	2	6	9	5

BOLALEKU
JATETXEA

• Hainbat menu
• Karla
• Ospakizunak

• BOLAPARK

Gentiliza, 1 - 48000
94 455 41 10
Jantziak
Facebook

Talbotza kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pinboak - Plazer konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralekera
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Egutegian
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Azokak

Derio

- > Piperdun feria. Martxoaren 25ean, 17:00etan, Larrabari baserrian. Piperdun elkarteak eta Udalak antolatua.

Larrabetzu

- > Txorierriko Txakolinaren Eguna. Martxoaren 25ean.

Ikastaroak

Loiu

- > Emozioak kudeatzen ikasteko tailerra, emakumeei zuzenduta. Izena ematea: martxoaren 12tik 21ra, udaletxean edo udala@loiueus helbide elektronikoan.

Derio

- > Txalo tailerra. Martxoaren 18an, 11:00etatik 13:00etara, Larrabari baserrian. Piperdunek eta Udalak antolatua.

Zamudio

- > Zen meditazioa. Martxoaren 15ean, 19:00etan, eskolako areto nagusian.

Larrabetzu

- > Zumba saioa, gazteentzat. Martxoaren 3an, 18:00etatik 20:00etara, frontoian.
- > Drogei buruzko tailerra, gazteentzat. Martxoaren 24an, 18:00etan, Angulerin.
- > Margogintza eta Patchwork (helduentzat). Izena ematea: martxoaren 12tik 16ra, Angulerin.

Ikuskizunak

Zamudio

- > Ipuin kontalaria. Martxoaren 10ean, 11:30ean, liburutegian.

Irteerak

Sondika

- > Lea errearen burdinbide berdea (Munitibar-Aulestia). Martxoaren 11n, 09:00etan, eskolako aparkalekuan. Izena ematea: martxoaren 7ra arte, liburutegian. Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua.

Derio

- > Iruña. Martxoaren 15ean, 08:00etan, Nagusien etxean. Nagusien etxeak eta Udalak antolatua.
- > Donejakue bidea: Zalla – Nave de Ordunte (19 km) eta Zalla – Balmaseda (9 km). Martxoaren 18an, 08:00etan, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.
- > Urkuluko urtegia. Martxoaren 25ean. Izena ematea: martxoaren 22ra arte kiroldegian. Untza mendi taldeak eta Udalak antolatua.

Zamudio

- > Sagardotegi batera. Martxoaren 4an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Txabarri jauregia. Martxoaren 17an, 11:00etan, Lagunandre elkarteak antolatua.
- > Hiru Erregeen Mahaia. Martxoaren 23tik 25era, Arroeta mendi taldeak antolatua.



Larrabetzu

- > Udaberriko ibilaldiak, umeei zuzenduta. Izena ematea: martxoaren 1etik 16ra, Anguleri kultur etxean.

Lehiaketak

Txorierri

- > Mihiluze. Izena ematea: martxoaren 1etik 23ra arte, ludoteketan.

Sondika

- > "Sondika pintxotan". Martxoaren 10ean.

Zamudio

- > Bizkaiko Txapelketako plater-tiroko saioa. Martxoaren 3an, 10:00etan. San Jose eguneko plater-tiroko saioa. Martxoaren 17an, 10:00etan. Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza eta arrantza elkarteak antolatua.

Bestelakoak

Derio

- > Pintxo pote. Martxoaren 10ean, 19:00etatik 22:00etara, Goiko aldean.
- > Pintxo pote. Martxoaren 17an, 19:00etatik 22:00etara, Beheko aldean.

Zamudio

- > "Euskaraz irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina. Martxoaren 12tik maiatzaren 31ra arte, Lagatzu euskara elkartearen eskutik.
- > Izena ematea, Benidormera bidaian. Azken eguna: martxoaren 16an.

Larrabetzu

- > Herriaren irudi berria aurkezpena. Martxoaren 6an, 19:00etan, Errebale jauregian.
- > "Oporrak bakean". Izena ematea: martxoaren 1etik 23ra, Anguleri kultur etxean.

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

Alre Autoocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48180 DERIO-BIZKAIA
Móbilak: 686 97 06 41 - 849 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 484 91 92
www.alreautoocasion.com info@alreautoocasion.com

Astiriza, 6 Inbisa ind., Cº 15-17, DERIO
688 847 633
Muji
% 10eko deskontua*

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater kombinatua
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2, DERIO Tel: 94 608 95 31

elekma
BOSCH, SIEMENS, SANY
Teléfono atención: 25 371 48 180 oax
T: 944 530 232
www.elekma.es

sarraila-denda Txorierri
NOTUM SARRAILAGINTZI ETA SEGUURTASUNARI
946 036 663
625 100 800
info@sarrailabonari.com
www.sarrailabonari.com
Alain Pomposo Zarate
Unioia, 4 lona
48180 Derio

Konekta zaitez gurekin!



 **Facebook:**
aikoraldizkaria

 **Twitter:**
@Aikortxorierrri

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus




Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **WhatsApp:**
688 86 41 35

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

ZAMUDIO-DERIO BASERRITARREN KOOPERATIBA



ZERBITZUAK:

- Albaitaritza
- Pentsuak
- Landareak
- Burdindegia
- Fitosanitarioak

